



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko otsailaren 10a

24. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2013ko abuztuaren 28ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1 artikuluko Bat atala kentzeko zuzenketa.

2. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzen duen Bat atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Atal honetan sartzen den aldaketa bakarra poliziako laguntzaileen figurari buruzkoa da. Irudi hori eztabaidagarria izan zen sortu zenean, eta bere erabilera ez da behar bezain arautua izan, baina gaur egun tresna hori gabe tokiko poliziaren kidegoei ezinezkoa litzaieke herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak ematen jarraitzea; beraz, ezin da kendu irudi hori.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikuluko bakarreko Bat atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Tokiko poliziako laguntzailearen figura emaitza bikainak eman izan ditu Nafarroako toki entitateetan.

Polizia lanpostua Nafarroako Administrazioko beste lanpostu batzuetatik bereizten da, zeren eta ezinezkoa baita lanpostu hori ordezte, poliziak agintaritzaren agenteak baitira. Ezin da polizien kontrataziorako zerrendarik eduki, Administrazioko gainerako lanpostuetan egoten diren bezala.

Udal betek polizia bat hartzeak urtebete baino gehiago eskatzen du, beste edozein lanpostu betetzea baino gehiago, zeren eta prestakuntza prozesua luzea baita. Horretaz gainera, ezin dira poliziak aldi baterako kontratatu.

Askotan bajak, lan zamak handitzearen ondoriozko egoerak, eszedentziak eta bestelako hutsuneak bete behar izaten dira, udal batzuetako segurtasun mailari eusten jarraitzeko. Poliziako laguntzailearen figura funtsezko gertatu da halako kasuetan. Izan ere figura hori egon badago, izen horrekin edo beste batzuekin, Espainiako autonomia erkidego gehienetan.

Ez dugu ulertzen zergatik atera nahi den lege honetatik, haren araupetzeak funtsezko lotura baitu tokiko poliziaren kidegoen araupetzearekin.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Bat atala kentzeko zuzenketa. 1. artikuluko b) letrari dagokio.

Zioak: Udal agenteen eta poliziako laguntzaileen egungo araubideari eutsi behar zaio, foru lege proposamenean planteatzen den edukian ez bezala.

5. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bat ataleko 1. artikuluko b) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aldaketa hori kentzea proposatzen dugu, eta, ondorioz, 8/2007 Foru Legearen 1. artikuluko b) letra dagoen horretan uztea. Gure ustez, beharrezkoa eta egokia da udal agenteen eta poliziako laguntzaileen egungo araudiari eustea.

6. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bat ataleko 1. artikuluko c) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“c) Nafarroako Foruzaingoko langileen Estatu-tua ezartzea. Foru lege honen alderdi ekonomiko-laboralak, beraz, bakarrik Foruzaingoari aplikatzekoak izanen dira.”

Zioak: Lege honen bidez nahi dena da parekatze ahalik eta handiena Foruzaingoaren kideen mailetak bakoitzean, funtzionaltasuneko, eraginkortasuneko eta berdintasuneko arrazoiak direla medio.

Egiteko dago antzeko parekatze bat tokiko polizietan, Iruñekoan bereziki; horretarako, negoziaketa espezifikoko batez gain, araubide espezifikoko bat aurreikusten da.

7. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legean 1. bis artikulua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Nafarroako poliziek, beren eraketan eta jarduteko moduan, Poliziarentzako giza eskubideen arloko araudi eta jardunbidea onartuko dute. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoak aldarrikatutako agiria da, New Yorken eta Genevan 2003an sinatua eta poliziarentzat interes berezikoak diren giza eskubideei buruzko gaiak biltzen dituen; esate baterako, ikerketak, atxiloketa poliziala eta indarraren erabilera.”

Zioak: Nafarroako polizien lege batean, heldu egin behar zaie NBEren araudian aipatzen direnen

moduko funtsezko gaiei, eta araudi hori nahitaez bete beharrezkoa ian beharko du.

8. ZUZENKETA**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA**
PATXI LEUZA GARCIA
FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

Bi atala kentzeko zuzenketa. 8/2007 Foru Legearen 2. artikuluari buruzkoa da.

Zioak: Poliziako laguntzaileekin lotuta dagoelako.

9. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO**
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA

Bi atala kentzeko zuzenketa. 2. artikuluari buruzkoa da.

Zioak: Bat atalari buruz aurkeztutako zuzenketekin koherentea izatea. Ez da komenigarritzat jotzen ez udal agenteen araubidea aldatzea, ez eta poliziako laguntzaileak kentzea ere.

10. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Bi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zentzurik ez du f) letran sartzea udal agenteentzako prestakuntza ikastaroa gaintitu behar izatea, poliziei buruzkoan halakorik sartu ez denean. Legeak jada alderdi hori jorratzen du.

Ez gaude ados poliziako laguntzailearen figura kentzearekin, 1. zuzenketarekin koherentzia gordeta.

Ez gaude ados, ezta ere, kontseilari eskudunaren definizioari buruzko erreferentzia kentzearekin, segurtasun juridikoarekin lotutako teknika juridikoko kontu batengatik eta kontseilari eskudunaren aipamen espresa egiten den legeko beste atal batzuekin koherenteak izateko.

11. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bi ataleko f) letra aldatzeko zuzenketa.

“f. “Udal agentea” Udaltzaingorik ez duen toki entitate bateko langileak, foru lege honetan ezarritako eginkizunak bere gain hartzen dituztenak, lanpostuak izendapen hori bera izan edo beste bat.”

Zioak: Ez da komenigarritzat jotzen udal agenteen araubidea aldatzea.

12. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bi atalean beste letra bat gehitzeko zuzenketa, g) letra. Honela geldituko da:

“g) Tokiko poliziako laguntzailea: udaltzaingoa duten toki entitateek administrazio araubidean aldi baterako kontratatzen dituzten langileak, kidego horretako langileak ordezkatzeko, absentismoaren eraginez, plantilla organikoan hutsik dauden lanpostuak betetzeko edo segurtasun publikoaren arloan une jakin batzuetan gertatzen diren beharrei kasu egiteko langile finkoekin aski ez dutenean kontratatzeko.”

13. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzen duen Bi atalari g) letra berria gehitzeko zuzenketa.

“g) «Tokiko poliziako laguntzailea»: udaltzaingoa duten toki entitateek administrazio araubidean aldi baterako kontratatzen dituzten langileak, kidego horretako langileak ordezkatzeko, absentismoaren eraginez, plantilla organikoan hutsik dauden lanpostuak betetzeko edo segurtasun publikoaren arloan une jakin batzuetan gertatzen diren beharrei kasu egiteko langile finkoekin aski ez dutenean kontratatzeko.”

Zioak: Gaur egun toki entitate askok murrizketa gogorra pairatuko lukete beren plantilletan eta utzi beharko liokete herritarrei zerbitzu bat emateari.

14. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bi atalaren barruan, 2. artikuluari g) letra gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“g) Tokiko poliziako laguntzailea.” Tokiko poliziarren kidegoa duten toki entitateek kontratatutako langileak, honako helburuak betetzeko:

1. Kidego horretako langileak ordezkatzeko, absentismoaren eraginez, plantilla organikoan hutsik dauden lanpostuak betetzea edo segurtasun publikoaren arloan une jakin batzuetan gertatzen diren beharrei kasu egiteko langile finkoekin aski ez dutenean kontratatzea.

2. Halaber, tokiko poliziako laguntzaileek berriazko eginkizun batzuk izanen dituzte, polizien bestekoak, lege honetako artikuluetan finkatuaren arabera. Tokiko poliziako laguntzaileak ezin izanen dira udal agenteen ordezkoko iraukorrak haiek berezko dituzten eginkizunetan, eta uneoro agente batekin egon beharko dute, haien eginkizunetan laguntzeko zereginetan ari direnean.”

Zioak: Poliziako laguntzaileen lana ongi finkatzea.

15. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarraren Hiru atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hiru atalak, 8/2007 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duenak, ez du inolako hobekuntzarik ekartzen, alderantziz baizik:

– Hasierako lerrokan “arituko dira” adierazten denez, geroago sartzen dituen adierazpenak, “beren eginkizunak betetzen dituztenean,” “beren jardun profesionalean” eta gisakoak, errepikakorak dira.

– Betebeharren artetik “Zerbitzua dela-eta egiten dituzten jarduketan berri emanen diete kidegoko buruei, hala nola lan horien kausa eta zergatikoen berri ere” dioena kentzen du, eta zentzugabea da, edozein erakunderi berez dago kiolako.

– Justifikaziorik gabe kentzen du beren burua polizia kidegoko kide gisa identifikatzea “beren jokabideak herritarrek lege dituzten eskubide eta askatasun publikoak mugatzen dituen egoera guz-

tietan,” eta hori kaltegarria da herritarren bermeetarako.

– Justifikaziorik gabe kentzen du “pertsonek bizia eta osotasuna, legea eta herritarren segurtasuna defendatu behar diren guztietan” esku hartzeko betebeharra “baita edozein delitu saihesteko ere,” eta hori bestelako lege batzuen bidez eskatzekoa da.

16. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposamenaren artikulua bakarreko Hiru atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«4. artikulua aldatu nahi da, eta testu hau izanen du:

a) e) letra berria erantsi da, testu honekin: “Zerbitzua dela-eta egiten dituzten jarduketan berri emanen diete kidegoko buruei, hala nola lan horien kausa eta zergatikoen berri ere”

b) h) letrak testu hau izanen du: “Kementsu eta azkar jokatu dute, jokabide hori kalte larri, berehalako edo konponezin bat saihesteko beharrezkoa denean. Horrelakoetan, koherentzia, egokitasun eta proportzionaltasun printzipioen arabera erabiliko dituzte eskura dituzten baliabideak”

c) k) letrak testu hau izanen du: “Atxiloketa bat egiten dutenean, beren burua kasuan kasuko polizia kidegoko kide gisa identifikatuko dute, bai, halaber, beren jokabideak herritarrek legez dituzten eskubide eta askatasun publikoak mugatzen dituen egoera guztietan”

d) l) letrak testu hau izanen du: “Pertsona bat atxilotzen den kasuetarako, antolamendu juridikoak ezartzen dituen izapide, epe eta betebeharrak behar bezala bete eta begiratuko dituzte, epaileen aurrean lehenbailehen eramateko”

e) n) letrak testu hau izanen du: “Lan dedikazioari dagokionez, erabateko dedikazioan arituko dira, eta, hortaz, pertsonen bizia eta osotasuna, legea eta herritarren segurtasuna defendatu behar diren guztietan esku hartuko dute, nonahi egonda, lanean izan ala ez izan, baita edozein delitu saihesteko ere”

f) o) letraren amaieran, “publikoak” terminoa gehituko da».

Zioak: Alde batetik argi dirudi poliziek beren nagusiei informatu behar dietela egiten dituzten jarduketei buruz, inpunitate-esparru oro saiheste

aldera eta, bestetik, hobekuntzak sartzen direla herritarren eskubideei dagokienez.

17. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzen duen Hiru ataleko j) letra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“j) Atxiloketa bat egiten dutenean, beren burua kasuan kasuko polizia kidegoko kide gisa identifikatuko dute, bai, halaber, beren jokabideak herritarrek legez dituzten eskubide eta askatasun publikoak mugatzen dituzten egoera guztietan. Identifikazio bera egiten dute edozein herritarrek hala eskatzen duenean, beti ere haien lanbideko jardunean ari badira”

Zioak: Agente baten identifikazioa ezin da ukatu inolako kontzeptu edo inguruabarren izenean”

18. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legearen 4. artikuluko a) letra –lege proposameneko Hiru atalean aipatua– aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

a. Nafarroako polizien kidegoek uneoro beteko eta betearaziko dituzte Nazio Batuen giza eskubideen inguruko hitzarmen nagusiak, bai eta Nazio Batuek egindako legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioentzako adierazpen eta printzipio-multzo ugariak ere. Halaber, Nafarroan indarra duen antolamendu juridikoa bete eta betearaziko dute.

Zioak: Poliziei buruzko giza eskubideen nazioarteko hitzarmenak bete behar direla adieraztea.

19. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legearen 4. artikuluko k) letra –lege proposameneko Hiru atalean aipatua– aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“k) Atxiloturik dauden edo zaintzapean dituzten pertsonen bizia eta osotasun fisikoa begiratuko dute, eta haien ohorea eta duintasuna errespetatuko. Horretarako, kuartelek, ziegek eta galdeketa-

gelek bideo- eta soinu-sistemak eduki behar dituzte. Kasuko epaileek eskatu ahalko dituzte haien grabaketak, atxilotuek salaketarik aurkeztuz gero.

Zioak: Atxilotutako pertsonen giza eskubideak errespetatuko direla bermatzeko.

20. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lege proposameneko 4. artikuluari o) letra gehitzeko zuzenketa, lege proposameneko Hiru atalaren barruan. Honako edukia izanen du:

“o) Nafarroako polizietako kideak diren agenteek ezin izanen dute aurpegia estali herritarren segurtasuneko kontuetan inplikaturako pertsonen errekerimenduak edo ohartarazpenak egiten dizkietenean. Halaber, uneoro erakutsi beharko dute beren polizia-identifikazioa, uniformeko jantzi guztien aurreko eta atzeko aldean, argitasunez, eta gutxienez ere hiru metroko distantzian irakurtzeko moduan”

Zioak: Atxilotutako pertsonen giza eskubideak errespetatuko direla bermatzea.

21. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa:

Artikulu berri bat, 5. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“5. bis artikulua. Herritarrekiko harremanak.

1. Nafarroako poliziek herritarrak artatzeko bulego bat edukiko dute, non, salaketak hartzeaz gainera, herritarren kexak eta eskariak ere jasoko dituzten. Bulego hori izanen da haiei erantzuteko erantzukizuna izanen duena.

Foruzaingoaren edozein polizia-etxetan salaketak, kexak eta polizia-zerbitzua hobetzeko iradokizunak aurkeztu ahalko dira.

Kexa eta iradokizun guztiak, haien erantzunak eta haien jarraipena erregistratuko dira, Nafarroako polizietan ezartzekoak diren ekintzak edo neurriak eskatu badira.

Segurtasun publikoaren arloan eskuduna den Departamentuari kexa eta iradokizunen eta haien erantzunen eta jarraipenaren berri emanen zaio, erregelamendu bidez ezatzen den moduan.

2. Herritarrekin harremanetan jarduteko eta herritarra artatzeko arauari buruzko eskuliburu edo prozedura bat garatuko da, eta polizia guztiek hura bete beharko dute”

Zioak: Nafarroako poliziei aplikatzea Nafarroako segurtasun publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legetik heldu diren estipulazio guztiak.

22. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa:

Artikulu berri bat, 5. ter, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“5. ter artikulua. Nafarroako polizien arteko harremana.

1. Foruzaingoak zentralizatuko du tokiko polizientzako goranzko nahiz beheranzko polizia-informazio guztia.

Foruzaingoak udal bakoitzari emanen dio bere udalerriri buruz daukan informazio guztia.

Tokiko poliziek beren udalerriri buruzko polizia-informazio guztia emanen diote Foruzaingoari.

2. Polizia-ikerketan diharduten tokiko poliziei babesa, informazioa edo beste edozein gisatako laguntza poliziala emateko eskari guztiak Foruzaingoaren bitartez eginen dira beti. Foruzaingoak, bidezkoa bada, eskari hori Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei bidaliko die.

3. Foruzaingoak lankidetzan jardunen du tokiko poliziekin, beharrezkoa denean haien zerbitzuak osatuz”

Zioak: Kontua da Nafarroan polizia-eredu bat artikulatzen joatea da, hiru mailarekin: Alde batetik dago Estatuko segurtasun orokorra bermatzen eta Nafarroako esparru geografikoa gainditzan duten delituen aurkako borrokan diharduen polizia; bestetik bigarren maila polizial bat dago, delituaren prebentzioan diharduena, lurraldetik hurbilago eta herritarren artean integratua –delitu-maila horri “foru delitua” deituko genioke horri, halakotzat ulertuta Nafarroako Foru Komunitatearena gainditzan ez duen esparru geografikoa–; eta, azkenik, tokiko segurtasunaren esparrua dago.

Horren arabera, batetik, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak daude; bestetik, Nafarroako Foruzaingoak; eta, azkenik, Nafarroako tokiko poliziak.

23. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Lau atala kentzeko zuzenketa. 6. artikuluari buruzkoa da.

Zioak: Proposamenak derrigorrezko egitura bat finkatzen du, zeinak berarekin baitakar kidegoen antolamendu-aldaketak gutxitzea, bereziki tokiko poliziaren kasuan.

24. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Lau atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenak aginte-katearen inflazioa dakar nabarmen, eta beharrezko bihurtzen du agintariak izendatzea, nahiz eta gerta daitekeen beharrezkoa ez izatea. Hori dela eta, egokiagotzat jotzen da egungo testuari eustea, zeren eta jarraibide orokorrak zedarritu nahi baititu inflazio-fenomenorik gerta ez dadin.

25. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lau ataleko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

8/2007 Foru Legearen 6. artikulua 3. idatz-zatiaren egungo testuari eusteko eskatzen da.

Zioak: Egitura hori finkatzea ez gehieneko baten gisara, baizik eta kidego desberdinen antolamendu-ahalmenak kaltetzea dakarren nahitaezko egitura baten gisara, eta, batez ere, tokiko poliziei dagokienean gehiegizko gerta daiteke.

26. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bost atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Polizien Kontseiluak baduzentzurik. Kontua da hura biltzeko dei egin behar dela eta bere eginkizunetan jardun behar duela. Hura kentzea ez da konponbidea.

27. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8/2007 Foru Legearen 11. artikuluari –hari buruzkoa da lege proposameneko Sei atala–, bi idatz-zati, 3.a eta 4.a, gehitzeko zuzenketa. Honako edukia izanen dute:

“3. Nafarroako errealtate elebiduna dela eta, eta ikusita foruzainak Nafarroa osoan mugitu ahal direla, Foruzaingoko agente guztien uniformeez errotulazio elebiduna izanen dute, gaztelaniaz eta euskaraz, biak ere uneoro ikusgarriak eta antzeko tamainako karakterekin.

4. Euskarari buruzko 28/1986 Foru Legearen arabera eremu mistoan eta euskaldunean kokatutako Foruzaingoa polizia-etxe eta instalazio guztiek, bai eta eremu horietako polizia-etxei atxikitako ibilgailu guztiek ere, errotulu elebidunak izanen dituzte, gaztelaniaz eta euskaraz, elementu horietako toki ikusgarrietan eta antzeko tamainako karakterekin.”

Zioak: Foruzaingoa errotulazioan eta uniformeetan Euskarari buruzko Foru Legea betetzea.

28. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11. artikulua aldatzen duen Sei atalari 3. puntu berria gehitzeko zuzenketa.

“3. Kontuan hartuz agenteen zein ibilgailuen mugikortasun-baldintza bereziak, polizia egitekoari berez dagozkionak, ibilgailuen, kredentzialen eta uniformearen errotulazioa elebitan egonen da, euskaraz eta gaztelaniaz, eta ikusgai egonen da uneoro, kolore- eta tamaina-baldintza berekin.”

Zioak: Hala agenteek nola ibilgailuek hizkuntza-eremu ezberdinetan eman dezakete zerbitzua, are lan egun berean ere. Horregatik, beharrezkoa da legea betetzea inolako moduan ere saihestuko ez duen errotulazio bat.

29. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

17. artikulua aldatzen duen Zazpi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako toki poliziei buruzko foru lege bat sortzeko egiten dugun proposamenarekin bat.

30. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proposameneko artikulua bakarreko Zazpi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Zazpi atalak, 8/2007 Foru Legearen 17. artikulua berriz idazten duenak, ez du inolako hobekuntzarik ekartzen. Hobe da oraingo testua uztea:

– Gehieneko populazioaren muga 5.000tik 6.000 biztanlera igotzen du, justifikaziorik gabe, eta poliziaren kidego bat edukitzeko betebeharraren orde, zuhurtziaren araberrako aukera hutsa ezartzen du, eta hori hiritarren kalterako da; gainera diskriminazio bat sartzen du herritarrek, herri batekoak edo besteak izan, jasotzen dituzten zerbitzuen artean.

– Sartzen duen ratioa, 500 biztanle bakoitzeko polizia batekoa, guztiz arbitrarioa da, eta tokiko autonomia mugatzen du.

– Aukera kentzen da Foruzaingoak tokiko polizia hitzarmenaren bidez ordeztuko Erabili gabeko bidea denez, hura kentzeko arrazoi zehatzik ez dago. Bide hori mantendu beharko litzateke, udalen eskura dagoen aukera bat delako.

31. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Zazpi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Segurtasun sistema bat ezin da borondatezkotasunean oinarritu, Legeak ezartzen ez duenean tokiko esparruan zeinek arduratu behar duen segurtasunaz Udalak kidegorik sortzen ez badu.

Biztanle kopuruari dagokionez (5.000tik 6.000ra pasatzea), alde handirik ez dago, baina ia autonomia erkidego guztietan 5.000koa da muga.

Une honetan, 3 udalerrri daude 5.000 biztanle baino gehiago eduki eta tokiko poliziarik ez dutenak (Aranguren, 8.092 biztanlerekin; Huarte, 6.543 biztanlerekin, eta Berrioplano, 5.971 biztanlerekin) eta beste bat 5.000 biztanletik oso hurbil dagoena, Lodosa, 4.939 biztanlerekin. Bestalde, bi udalerrri badaude 6.000 biztanletik behera dituztenak baina tokiko polizia badutenak: Zangoza, 5.177 biztanlerekin, eta Castejón, 4.207 biztanlerekin.

Bestalde, ezartzeak tokiko polizia bat eratzeko 12 poliziako gutxieneko bat eta 500 biztanleko polizia bateko ratioa behar direla, ratio oso altua finkatzeaz gainera, arazo larriak eragiten ditu lehendik dauden poliziekin.

Hala eta guztiz ere, zuzenketaren alde garrantzitsuena da ezen proposatzen den testuak oraindik ere gehiago garatzen duela alderdi hori, aurreko testuarekin alderatzen badugu.

Garrantzitsua da Foruzaingoak tokiko poliziak bereganatzeko aukerari eustea, are gehiago nahitaezkoa den ezer suposatzen ez duenean.

Legetik aipamen hori kentzeak poliziaren maparen argipena zailduko luke.

32. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Zazpi atala kentzeko zuzenketa –17. artikuluari buruzkoa da–. 1., 2., 3. eta 5. puntuak kentzen ditu.

Zioak: Proposamenak funtsetik aldatzen du tokiko poliziaren kidegoen sortzea eta egitura. Nagusiki, kidegoak nahitaezko izatea aldatzen du, zeren eta egungo aginteraren orde –"sortuko dituzte"–, "beren tokiko poliziaren kidegoak sortu ahalko dituzte" erabiltzen baitu. Alabaina, kidegoa sortzen baldin bada, derrigortu egiten da 500 biztanleko polizia bat izatearen ratioa errespetatzera, eta finkatzen da gutxienez ere hamabi polizia egonen direla. Hori dela eta, kidegoak aurrerantzean sortzen dituzten udalak ez ezik, jada halako kidegoak badituzten baina gutxieneko hori betetzen ez dutenak ere derrigortzen ditu lanpostu horiek sortzera, horrek ordainsarrietan dakarren kostuarekin.

Tokiko polizia kidegoak Foruzaingoa integratzeko aukera ere desagertzen da, eta horrek zaildu egiten du etorkizunean har litezkeen antolamenduzko neurriak hartzea.

33. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8/2007 Foru Legearen 17. artikuluari –hari buruzkoa da lege proposameneko Zazpi atala–, bi idatz-zati, 2.a eta 3.a, kentzeko zuzenketa. Honako edukia izanen du:

Zioak: Helburua da bidea egiten hastea Iruñerriko poliziak batzeko. Hori egin beharko litzateke –hala erabakiz gero– behin Toki Mapari buruzko Legea adostu eta onetsi ondoren.

34. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zazpi atalean aldatzen den artikuluko 5. idatz-zatia kentzeko zuzenketa. Proposatzen dena da 8/2007 Foru Legearen 17. artikuluko idatz-zatiak bere horretan uztea.

Zioak: Proposatzen den testuak funtsezko aldatketak eragiten ditu tokiko poliziaren kidegoen sorreran eta egituran. Nagusiki, kidegoak nahitaezko izatea aldatzen du, zeren eta egungo agintaren ordezkari sortuko dituzte”, “beren tokiko poliziaren kidegoak sortu ahalko dituzte” erabiltzen baitu. Alabaina, kidegoa sortzen baldin bada, derrigortu egiten da 500 biztanleko polizia bat izatearen ratioa errespetatzera eta finkatzen da gutxienez ere hamabi polizia egonen direla. Hori dela eta, kidegoak sortzen dituzten udalak ez ezik, jada halako kidegoak izan baina gutxienez hori betetzen ez dutenak ere derrigortzen ditu lanpostu horiek betetzera, horrek ordainsariatetan dakarren kostuarekin.

Tokiko polizia kidegoak Foruzaingoan integrazeko aukera ere desagertzen da, eta horrek zaildu egiten du etorkizunean har litezkeen antolamenduzko neurriak hartzea.

35. ZUZENKETA**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCIA
FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA**

8/2007 Foru Legearen 17. artikuluari buruzko Zazpi atala aldatzeko zuzenketa.

Foru Lege proposameneko 17.1 artikulua, Zazpi atalean jasotzen dena, aldatzea proposatzen da. Hona testua:

“17. artikulua. Tokiko poliziaren kidegoak sortzea.

1. Sei mila biztanleko edo gehiagoko zuzenbideko populazioa duten Nafarroako herriek beren tokiko poliziaren kidegoak sortu ahalko dituzte, gutxienez ere hamabi polizia edukiz, eta ratioa izanik, orientazio gisa, 500 biztanle bakoitzeko polizia batekoa.

(...)”

Zioak: Ez zaigu arrazoizkoa iruditzen ratio hori derrigorrezkoa izatea.

36. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

17. artikuluari buruzkoa den Zazpi atala aldatzeko zuzenketa. 4. idatz-zatiak honako testua izanen du.

“Toki entitateek Nafarroako Gobernuarekin hitzartzen ahalko dute tokiko poliziaren zerbitzua Foruzaingoak eman dezala”

Zioak: Zazpi atala kentzeko zuzenketarekin koherentea izatea.

37. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8/2007 Foru Legearen 17. artikuluko 1) –lege proposameneko Zazpi atalean aipatua– aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. Sei mila biztanleko edo gehiagoko zuzenbideko populazioa duten Nafarroako herriek beren tokiko poliziaren kidegoak sortu ahalko dituzte, betiere gutxienez 700 biztanle bakoitzeko polizia bateko ratioa errespetatuz eta gutxienez ere hamar polizia edukiz”

Zioak: 500 biztanle bakoitzeko polizia bateko ratioa gehiegizkoa da.

38. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zazpi atalean aldatzen den artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“4. Toki entitateek Nafarroako Gobernuarekin hitzartzen ahalko dute tokiko poliziaren zerbitzua Foruzaingoak eman dezala”

Zioak: 4. idatz-zatiarentzat proposatzen den testuarekin, mugatu egiten da Nafarroako Gobernuarekin polizia-eginkizunetarako sina daitezkeen hitzarmenen esparrua, nahiz eta egia den desagertu egiten dela, orain, udalek eginkizunon kostua ordaintzeko duten betebeharra.

39. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legearen 17. artikuluari –hari buruzkoa da lege proposameneko Zazpi atala–, bi idatz-zati, 6.a eta 7.a, gehitzeko zuzenketa. Honako edukia izanen dute:

“6. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera eremu euskalduneari dauden udalek, tokiko poliziaren kidegoak sortu nahi badituzte, agenteen hizkuntza-eskakizuna ezartzean, ziurtatu beharko dute % 50ek B2 maila egiaztatu beharko duela, eta gainerakoek A2 maila. Eremu horretan jada sortuak dauden tokiko poliziaren kidegoek bost urteko epea izanen dute beren agenteak birziklatu eta aipatutako ezagutze-maila lor dezaten.

7. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera eremu mistoan dauden udalek, tokiko poliziaren kidegoak sortu nahi badituzte, agenteen hizkuntza-eskakizuna ezartzean, ziurtatu beharko dute % 30ek B2 maila egiaztatu beharko duela. Eremu horretan jada sortuak dauden tokiko poliziaren kidegoek bost urteko epea izanen dute beren agenteak birziklatu eta aipatutako ezagutze-maila lor dezaten.”

Zioak: Polizia-zerbitzuetan euskararen ezagutza egokia dela ziurtatzea.

40. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikuluko Zortzi atala kentzeko zuzenketa.

41. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua kentzen duen Zortzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Poliziako laguntzailearen figura kentzeak, haren ordezkari aukera bat eman gabe, egoera zailean jarriko lituzke hainbat udal, tokiko poliziaren zerbitzua emateko.

42. ZUZENKETA**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA**
PATXI LEUZA GARCIA
FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 19. artikulua kendu nahi duen Zortzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen 19. artikulua, tokiko poliziako laguntzaileen figura arautzen duena, mantentzea proposatzen da, hori konponbidea delako, gertatzen diren administrazio-egoera askotan, toki entitateek zerbitzua ematen jarrai dezaten, mota horretako langileak kontratatuz.

43. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO**
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA

19. artikuluari buruzko Zortzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Udal laguntzaileek, Poliziei buruzko Foru Lege indarduneari araututa dauden moduan, aukera ematen dute tokiko polizia gutxi izatearen arazoak nolabaiteko arintasunez konpontzeko, edo laneko bajako kointurazko egoerak edo absentismo luzeko egoerak konpontzeko, zerbitzua ematean disfuntzioak eragiten baitituzte. Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen da foru legeari egungo terminoetan eustea.

44. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zortzi atala kentzeko zuzenketa.

Proposatzen da atal hori kentzea eta, ondorioz, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen 19. artikulua mantentzea.

Zioak: Udal laguntzaileek, Poliziei buruzko Foru Lege indarduneari araututa dauden moduan, aukera ematen dute tokiko polizia gutxi izateak eragindako arazoak nolabaiteko arintasunez konpontzeko, edo laneko bajako kointurazko egoerak edo absentismo luzeko egoerak konpontzeko, zerbitzua ematean disfuntzioak eragiten baitituzte. Beraz, udal laguntzailearen figurari eutsi egin behar zaiola uste dugu

45. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proposameneko artikulua bakarreko Zortzi atala (egungo legearen 19. artikuluari dagokiona) ordeztuko zuzenketa:

«19. artikulua aldatu nahi da, eta testu hau izanen du:

a) Laugarren lerrokadaren amaieran, honakoa gehitu nahi da: “Epe hori etenda geratuko da toki entitateek tokiko poliziako laguntzaileak halakotzat kontratatuta dauzkaten aldietan.”

b) Zortzi atal berria gehitzen da, honako testuarekin: “8. Tokiko poliziaren kidegorik ez duten toki entitateek, aparteko izaeraz, tokiko poliziako laguntzaileak kontratatu ahalko dituzte, udal agenteei laguntzeko, Nafarroako Gobernuko segurtasun publikoaren arloko departamentu eskudunak aurrez baimena emanda. Kontratazio horiek ezin izanen dira inolaz ere egin toki entitatean jardunean dagoen udal agenterik ez badago.”»

Zioak: 1. artikuluko zuzenketarekin koherenteak izatea.

46. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Foru lege proposamenari beste atal bat –Zortzi atala– gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“19. artikulua. Tokiko Poliziako laguntzaileak

1. Udaltzaingoa duten toki entitateek zilegi izanen dute langileak kontratatzea, udaltzain laguntzailearen izenarekin, udaltzainen eginkizunen eraginkortasuna helburu, plantilla organikoari udaltzainen absentismoak edo aldi baterako hutsik dauden lanpostuen kopuruak eragiten dionean, lanpostu hutsak betetzeko edo segurtasun publikoaren arloan gertatzen diren salbuespenezko edo behin-behineko beharrei kasu egiteko.

2. Poliziako laguntzailearen eginkizunak:

a) Udalaren zerbitzu, instalazio eta egoitzak jagon eta zaintzea.

b) Hiriguneko trafikoa antolatzea, seinalatzea eta zuzentzea, zirkulazio arauarekin bat.

c) Erregelamendu, bando eta udalaren gainontzeko xedapen eta egintzak betetzen direla zaintzea.

d) Babes zibileko eta herritarrei laguntza emateko zereginetan parte hartzea, legeek xedatuarekin bat.

e) Kidegoko funtzionarioei laguntzeko lanak, haien zuzendaritzapean. Inolaz ere ezin izanen da ulertu haren eginkizuna plantilla organikoan lanpostua duen tokiko poliziako agente bat ordeztuko eginkizun gisa, eta beti jardunen dute tokiko poliziako agente baten ikuskatzearen epean, berezkoak zaizkien jarduketetan laguntza-lanetan dihardutenean.

3. Udaltzain laguntzaileek behar bezala identifikatzeko moduko ezaugarriak eramanen dituzte aldean eta behar den dokumentazioaren bidez frogatuko dute udaltzain izaera. Ez dute sekula eramanen su-armarik.

4. Kontratazioa egiteko orduan, Nafarroako Segurtasun Eskolak berariaz ematen duen udaltzain laguntzailearen gaikuntza ez dutenak ezin izanen dira kontratatu udaltzain laguntzaile gisa aritzeko. Eskolak gaikuntza emanen die propio prestatzen diren berariaz gainditzen dituztenei bakar-bakarrik. Gaikuntza lortzeko bi bide daude: Eskolak aldi behin egiten dituen deialdi publiko berariazkoak edo toki entitateak sustatzen duen hautapen prozesua. Gaikuntzak bost urterako balioko du.

5. Toki entitateak sustatutako hautapen prozesuetan izangaiek gaitasun fisikoa ebaluatzeko azterketa bat eta jakintza tekniko eta juridiko orokorra neurtzeko azterketa bat gainditu beharko dituzte, eta horrela aurreikusiz gero, baita bidezko diren proba psikoteknikoak ere.

6. Udaltzain laguntzaile baten kontratazioa plantilla organikoan udaltzain lanpostu bat hutsik dagoelako egiten denean, toki entitateak lanpostu hori behin betikoz betetzeko deialdia kontratazioa egin eta gehienez urtebeteko epean egin beharko du. Eskaini ezean, urtebeteko epea betetzen den egun berean administrazio kontratua iraungiko da zuzenean, eta toki entitateak behar den likidazioa egin beharko dio.

7. Tokiko poliziako laguntzailearen lanpostuak kasuko toki entitatearen plantilla organikoan jasoko dira, eta Funtzio Publikoaren Estatutuko D mailan egonen dira”

Zioak: Tokiko poliziako laguntzailearen definizioa eta eginkizunak.

47. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20. artikulua aldatzen duen Bederatzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Tokiko poliziei buruzko foru lege berri bat egiteko gure proposamenarekin bat, ez da bidezko tokiko poliziak aipatzen dituzten artikuluetan aldaketak egitea. Are gutxiago aldaketa horiek tokitateen adostasuna kontuan hartu gabe egin nahi badira.

48. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko Bederatzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bederatzi atalak, 8/2007 Foru Legearen 20. artikulua berriz idazten duenak, ez du inolako hobekuntzarik ekartzen. Hobe da oraingo testua uztea:

– Izenen kontu hutsa diren aldaketez gain, mamitsuena da udal agenteek armak edukitzea. Alegia, udalei inposatzen zaie agente horiek armaz hornitzea. Ez du zentzu handirik, zenbait kasutan armarik gabe jardun ahal dutelako Foruzaingoak zein tokiko tokiko poliziak. Udal bakoitzaren erabakia izan behar da.

– Beste alde batetik, kendu egiten da agenteak tokiko polizian sartzeko prozedura, kidego hori sortzen denean, eta zehaztu gabe geratzen da zer gertatuko den kasu horretan.

49. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO**
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA

Bederatzi atala, 20. artikuluari buruzkoa, kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenaren edukiak berarekin dakar aldaketa handi bat egitea polizia agenteen egungo araubidean. Egungo erregulazioarekin, langile horiek, zeinak polizia kidegorik ez duten udaletakoak baitira, berez poliziarenak diren eginkizunekin batera bestelako eginkizunak bete ahalko dituzte, udalbatzak hala eskatuta. Funtzio horiek armekin nahiz armarik gabe bete ahalko dituzte.

Proposamenak ezintzen du langile horiek bestelako eginkizunak betetzea, eta kasuko toki entitate behartzen du, edozein dela ere haren populazioa eta berariazko egoera, langile horiek guztiz erabiltzera hertsiki polizialak diren eginkizunetan, eta gainera, haiek armatuta egotera derrigortzen du.

50. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Bederatzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Logikoa dirudi ezen 5.000 biztanle baino gutxiago duten toki entitateek –horrenbestez, tokiko poliziaren kidegorik ezin eduki dezaketenek– udal agenteak eduki ahal izatea, polizia-eginkizun batzuk betetzeko behar adinako prestakuntza eta zuzkidurarekin, eta, horretarako, agintaritzaren agentearen izaera edukitzea, baina aldi berean poliziarenak ez diren beste eginkizun batzuk bete ahal izatea, toki entitate txikien baliabide eskasak ahal den modu onenean baliatze aldera. Kasu horietan, ez da beharrezkoa armak eramatea eta, horrenbestez, ez da ulertzen funtzionario horiek nahitaez eta uneoro armatuta egon behar izatea eta bestelako lanetan ezin aritzea.

51. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legearen 20. artikuluari –hari buruzkoa da lege proposameneko Bederatzi atala– h) letra gehitzeko zuzenketa. Honako edukia izanen du: Hauxe da testua:

“h) Tokiko poliziako laguntzaile lanposturik ez badago, agenteek beren gain hartu beharko dituzte haiek betetzen dituzten eginkizunak, foru lege honetan finkatu bezala.”

Zioak: Poliziako laguntzaileen eginkizunak, haiek ez daudenean.

52. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzen duen Hamar atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Tokiko poliziei buruzko foru lege berri bat egiteko gure proposamenarekin bat, ez da bidezko tokiko poliziak aipatzen dituzten artikuluetan aldatu egitea. Are gutxiago aldatu horiek toki-entitateen adostasuna kontuan hartu gabe egin nahi badira.

53. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hamar atala (egungo legearen 21. artikuluari dagokiona) ordezteko zuzenketa:

«21. artikuluari beste lerrokada bat erantsiko zaio. Testu hau izanen du:

“3. Bi toki entitate desberdinetakoak izan eta tokiko polizia edo udal agente izaera duten bi funtzionario publikoren arteko permuta egin ahalko da. Permuta hori hauxe izanen da: beren borondatez destinoak elkarrekin trukatzeko, kasuko toki entitateek hori aurrez onetsita.”»

Zioak: Aurreko zuzenketekin koherenteak izatea aldera, tokiko poliziako laguntzailearen figurari eusten zaio.

54. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legearen 21. artikuluari –hari buruzkoa da lege proposameneko Hamar atala– 4. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Honako edukia izanen du: Hauxe da testua:

“4. Tokiko poliziako agenteen edo laguntzaileen arteko permutarik izanez gero, lanpostua eremu euskaldunetan edo mistoan eskatzen dutenek euskaraz badakitela egiaztatu beharko dute, eskatutako destinoan jarduteko eskatzen baita.”

Zioak: Euskaraz jakin behar izatea eremu euskalduneko eta mistoko polizia-etxeetan lanpostua hartu nahi izanez gero.

55. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hamaika atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Hamaika. 24. artikulua honela idatzita geldituko da:

“24. artikulua. Uniformea, ezaugarriak, armak eta kredentzialak.

1. Tokiko polizietako kideek, lanean dihardutela, uniformea jantziko dute beti. Toki entitateko alkateak edo buruak, edo hark eskuordetuta tokiko poliziaren kidegoko buruak, baimenduko ditu, arrazoiak emanda, zein unitatek edo kidegoko kidek beteko dituzten beren eginkizunak uniformea jantzi gabe, zerbitzuak horretara behartzen duenean.

2. Dagokion toki entitate bakoitzak berariazko garapen arauak emanen ditu uniformeei, kredentzialei, bereizgarriei eta, kasua bada, agurrari buruz, Nafarroako Gobernuak ezartzen dituen xedapen orokorrei jarraituz, Tokiko Polizien Koordinazio Batzordeak txostena eman ondoren

3. Tokiko poliziako kideek, beren eginkizunetan dihardutela, Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezartzen dituen armak eramanen dituzte. Toki entitateko alkateak edo buruak, edo hark eskuordetuta tokiko poliziaren kidegoko buruak, ezarriko ditu, arrazoiak emanda, zein unitatek edo kidegoko kidek beteko dituzten beren eginkizunak arauko arma eraman gabe, zerbitzuak horretara behartzen duenean.

4. Armak erabiliko dira aplikatzeko den legedi orokorrean xedatuari jarraituz”».

Zioak: Testua hobetzea, uniformearen eta armen erabilerrari dagokionez. Ez da bidezko proposameneko testua, erregelamendu bidezko garapenari dagokionez. Hobe da oraingo testua uztea. Batzordeak, berez duen izaeragatik, ez du arautzeko ahalmenik. Nafarroako Gobernuaren xedapenak garatzea toki-entitate bakoitzari dagokio.

56. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hamaika atala (egungo legearen 24. artikuluari dagokiona) ordezteko zuzenketa:

«24. artikulua 3. idatz-zatiaren amaieran ondoko testua gehitzea proposatzen da:

“Alkateak, Nafarroako Gobernuko segurtasunaren arloko departamentu eskudunak aurrez baimeana emanda, arauko arma eramateko betebeharretik salbuetsi ahalko ditu tokiko poliziak, inguruabar batzuk direla-eta hori gomendagarria denean”».

Zioak: Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordea Nafarroako Gobernuaren departamentu eskudunaren organo aholku-emaile bat da (8/2006 Foru Legearen 16. artikulua) eta, horrenbestez, ezin du berriazko araurik eman.

Nafarroako Gobernuak aurrez baimena eman da, alkateak armak eramateaz salbuesteko aukera zabaltzen da, zeren eta inguruabar batzuetan, nola baita gizakien masak kontrolatzeko jarduerak (esate baterako txupinazoa), zuhurragoa, eta are seguruagoa ere, izan baitaiteke armarik ez eramatea.

57. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legearen 24. artikuluari –hari buruzkoa da lege proposameneko Hamaika atala– 5. eta 6. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Honako edukia izanen du: Hau da testua:

“5. Nafarroaren errealitate elebiduna dela eta, eremu mistoan edo euskaldunean diharduten tokiko poliziako agente eta laguntzaile guztien uniformeek errotulazio elebiduna izanen dute, gaztelaniaz eta euskaraz, biak ere uneoro ikusgarriak eta antzeko tamainako karakterekin.

6. Euskarari buruzko 28/1986 Foru Legearen arabera eremu mistoan eta euskaldunean kokatutako udaletako tokiko poliziaren polizia-etxe eta instalazio guztiek, bai eta eremu horietako polizia-etxeei atxikitako ibilgailu guztiek ere, errotulu elebidunak izanen dituzte, gaztelaniaz eta euskaraz, elementu horietako toki ikusgarrietan eta antzeko tamainako karakterekin”.

Zioak: Tokiko poliziaren euskarazko errotulazioa

58. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

28. artikulua aldatzen duen Hamabi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da zentzuzkoa polizia kidegoetan funtzionario gisa sartzeko hautapena oposizioaren bidez egiteko aukera kentzea, deialdi askotan ohikoa den bezala.

59. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hamabi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hamabi atalak, 8/2007 Foru Legearen 28. artikulua berriz idazten duenak, ez du inolako hobekuntzarik ekartzen. Hobe da oraingo testua uztea:

– Oposizioa kentzen du, baina ez du zentzu handirik hasieran polizia gisa sartzeko, guztiz sistema egokia baita.

– Batere ondoriorik ez duen aldaketa bat sartzten du, hautapen prozesuaren printzipioei dagokionez; baina horiek konstituzio-printzipioak dira, edonola ere aplikatuko direnak. Testua okerrago gelditzen da, legearekin bat ez datorren parentesi batekin, ziur aski behar bezala prestatu ez zen zirriborro batetik zirristatu dena.

60. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Hamabi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Oposizioaren sistema berreskuratzen da Funtzio Publikora sartzeko sistema gisa. Bi sistemei eusteak hautatzeko aukera zabalagoa ematen die administrazioei.

Funtzio Publikoaren Estatuako 5. artikuluan funtzionario guztientzat ezarritako printzipioak baizik ez dira jasotzen, bestelakorik gehitu gabe. Horrek ez die gardentasunik kenduko hautapen sistemei, zeren eta bai berdintasuna, bai publizitatea hautapen prozedura horietako irizpide arautzaileak baitira.

61. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legearen 29. artikuluko –hari buruzkoa da lege proposameneko Hamahiru atala– 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako edukia izanen du: Hau da testua:

“1. Hautaprobak objektiboak izanen dira, eta izangaiek aurretiaz ezagutuko dituzte ebaluaziorako parametro teoriko eta praktikoak. Hautaprobe-

tan sartuko dira, gutxienez ere, egoera fisikoari buruzko probak, eskatutako maila akademikoaren araberrako ezagutza-probak, euskararen ezagutza-mailari buruzko probak eta proba psikoteknikoak. Ekipo berak eginen dizkie proba psikoteknikoak izangai guztiei, eta halako moduan eginen dira non diskrezioa ziurtatuko den eta, hortaz, ekipo ebaluatzaileak ez dituen ezagutuko gainontzeko proben emaitzak”.

Zioak: Euskara-gaitasuna sartzea hautaprobetan.

62. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarrek Hamalau atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Hamalau. 30. artikulua honela idatzita geldituko da:

“30. artikulua. Baldintzak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionario gisa sartzeko hautaprobetan onartua izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Nazionalitatez espainiarra izatea.
- b) 18 urte beteta eta 55 urte bete gabe izatea.
- c) Lanposturako eskatzen den titulua izatea.

d) Eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea eta arlo honetan esku-mena duen kontseilariaren foru aginduaren bidez ezarritako baztertze-arrazoi medikoen taulan ez egotea.

e) Doluzko delitu bat dela kausa kondenatua ez izatea, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik baztertua ere, eta eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez izatea, deusetan galarazi gabe errehabilitazioaren onura aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako arauetara jarraikiz.

f) Erregelamendu bidez ezartzen den ibilgailu mota gidatzeko baimena edukitzea.

2. Betebehar hauek eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen bete behar dira, f) letrakoa izan ezik, prestakuntza ikastaroan onarturiko hautagaien behin-behineko zerrenda argitaratzen den egunean bete beharko baita”».

Zioak: Testua hobetzea. Ongi dago gutxieneko altueraren eskakizuna kentzea, baina zentzugabea da 55 urtetik gorako sarrera, bigarren jarduerara igarotzeko adina denez, lehen jardueran ez egotea ekarriko lukeelako.

63. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarrek Hamalau atala (egungo legearen 30. artikuluari dagokiona) ordeztzeko zuzenketa:

«19. artikulua aldatu nahi da, eta testu hau izanen du:

– “1.e) letra kentzea».

Zioak: Hautapen prozesuak, eta bereziki prestakuntzak, ekonomikoki eta denboraren ikuspuntutik daukan kostu handiak berarekin dakar lanbide-aldi luzea eduki behar izatea, betiere ahalleginaren eta jardunaren ikuspuntutik moderatua. Hori dela eta, egokia dirudi adina dela-eta gehieneko muga bat ezartzea polizia-kidegoetan sartzeko, horren bidez prestakuntzan eta baliabidean eginiko inbertsio publikoa amortizatzeke.

Bestalde, Nafarroako polizia kidegoek sartzeko adina dela-eta gehieneko muga bat ezarrita eduki dutenez, eta azken urteetan enplegu eskaintza publikoa jaitsi denez, kidego horiek, gaur egun, adina dela-eta batez besteko altuak izatea, beste polizia kidegoetan baino altuagoa, eta horrek arazoak sor ditzake, esate baterako aldi berean gerta daitekeelako polizia kopuru handi batek bigarren jarduerako edo erretiroko egoeretara sartu nahi izatea.

Horrek guztiak justifikatzen du adin-muga batzuk ezarri behar izatea kidegoak gazteagoak izan daitezkeen lortzeko, esleituta dauzkaten eginkizun askotan jardun ahal daitezkeen. Adin muga hori ezartzen ez bada, ez da bermaturik geratuko polizia gazteen nahi den masa kritikoa.

Gutxieneko altuera kentzeari eusten zaio.

Segurtasun juridikoaren printzipioa aplikatuta, bai izangaiei, bai Administrazioari berari, komenigarria litzateke eskatzea baldintza guztiak bete daitezela parte hartzeko eskaria aurkezteko unean. Administrazioaren beste inongo enplegutik ez da baimentzen halako geroraterik funtsezko baldintzak betetzeari dagokionez.

64. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarrek Hamabost atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dirudi egokia denik sarrera baimen-
tzea C mailako funtzionario gisa izendatzek behar
den titulazioa eduki gabe, Funtzio Publikoko gaine-
rako enplegatuekin egiten den bezalaxe.

Titulazioaren baldintza kentzeak, gainera, ez
du inongo zentzurik gaur egun, lanbide heziketari
eman zaion bultzada dela eta, eta kontuan hartuta
Funtzio Publikoaren lanpostu horietara sar daitez-
keen gazte-sektoreen prestakuntza maila handia.

65. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

32. artikulua aldatzen duen Hamasei atala ken-
tzeko zuzenketa.

Zioak: Tokiko polizietan sartzea delako, eta
toki-entitateen zerbitzua aldatu ahal duelako.

66. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Hamasei
atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenak ez du egungo testua
hobetzen.

67. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

33. artikulua aldatzen duen Hamazazpi atala
kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da komenigarria kabo kategoriari
iristeko barne-igoeraren sistema aldatzea, kontuan
hartuz bi lanpostuak maila berekoak direla. Aldi
berean, ez zaizkigu beharrezkoak iruditzen propo-
satutako aldaerak, toki-entitateen plantillan funt-
sezko aldaketak sortu ahal dituztelako.

68. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Hamazaz-
pi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenak ez du testua egungo
hobetzen.

69. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hamazazpi
atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Hamazazpi. 33. artikulua honela idatzita geldi-
tuko da:

“33. artikulua. Kabo kategorian sartzea.

1. Kabo kategoriako deialdiko lanpostu hutsak
polizia kategorian dutenen barne-igoeraren bidez
beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa eginen
da. Lehiaketa horretan parte hartzeko, gutxienez
ere hiru urteko !!!!!edo gehiagoko!!!! an-
tzinatasuna eskatuko da polizia kategorian.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren lanpostu
hutsak betetzeko deialdian, polizia kidego bere-
ko kideentzako barne igoerarako txanda bat eza-
rriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu
hutsekin, ezarriko betebeharrak betetzen dituzten
Nafarroako polizia kidego guztietako kideentzat
irekia.

3. Txanda ireki horretan betetzen ez diren pos-
tuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio.

4. Idatz-zati hau aplikatzeari dagokionez, Nafa-
rroako polizia kidego guztietako kideei zabalik
egonen diren lanpostuak izanen dira deialdiko lan-
postu-hutsetatik bigarrena eta, ondoz ondo, hirutik
bat (bosgarrena, zortzigarrena, hamaikagarrena,
eta abar) “»

Zioak: Proposameneko testuak funtzionarioen
artean sortarazten duen bereizkeria ezabatzea,
igoerarako aukera handiagoa ematen duelako
Foruzaingotik tokiko polizietara, alderantzizko igo-
erarako baino.

70. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

33. artikuluari buruzkoa den Hamazazpi atala
aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatiak honako testua
izanen du:

“33. artikulua. Kabo kategorian sartzea.

1. Kabo kategoriako deialdiko lanpostu hutsak,
polizia kidego bakoitzean, aurreko kategoriatik
(polizia) eginiko barne-sustapenean bidez beteko
dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa eginen da.
Lehiaketa horretan parte hartzeko, eskatuko da

polizia kategorian gutxienez ere hiru urteko edo gehiagoko antzintasuna izatea”

Zioak: Araudia argitzea: sarbidea polizia kidego beretik eginen da.

71. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Hemezortzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenak ez du testua egungo hobetzen.

72. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

34. artikuluari buruzkoa den Hemezortzi atala aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen dute 1., 2. eta 3. idatz-zatiek:

“34. artikulua. Inspektore-orde kategorian sartzea.

1. Inspektore-orde kategoriako deialdiko lanpostu hutsak kabo kategoria dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa eginen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, kabo kategorian gutxienez ere hiru urteko antzintasuna izatea eskatuko da eta, orobat, erdi mailako ikasketa titulua. Titulurik ez edukiz gero, kategoria hartan sei urte baino gehiagoko antzintasuna izatea. Halaber, gutxienez ere zortzi urteko antzintasuna eta eskatzen den erdi mailako titulazioa daukaten Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek hartu ahal izanen dute parte.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren deialdie-tako lanpostuak Foruzaingoaren kidegoaren barne sustapenez beteko dira soilik.

3. Tokiko poliziaren kidegoetan, barne igoerako txanda bat ezarriko da polizia kidego bereko kideentzat, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsekin, ezarriko betebeharrak betetzen dituzten Nafarroako polizia kidego guztietako kideentzat irekia.

Txanda ireki horretan betetzen ez diren postuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio.

Tokiko polizietan, Nafarroako polizia kidego guztietako kideei zabalik egonen diren lanpostuak

bigarrena eta, ondoz ondo, hirutik bat (bosgarrena, zortzigarrena, hamaikagarrena...) izanen dira.

Zioak: Irizpide berri batzuk ezartzea lanbide-karreraren sartzeko, halako moduz non kalitate-mailak igoko baitira.

73. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Hemeretzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenak ez du testua egungo hobetzen.

74. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hemeretzi atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Hemeretzi. 35. artikulua honela idatzita geldituko da:

“35. artikulua. Inspektore kategorian sartzea.

1. Inspektore kategoriako lanpostu hutsak inspektore-orde kategoria dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa eginen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, inspektore-orde kategorian gutxienez ere hiru urteko antzintasuna eskatuko da eta, orobat, erdi mailako ikasketa titulua. Titulurik ez badute, kategoria hartan bost urte baino gehiagoko antzintasuna izatea.

2. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren lanpostu hutsak betetzeko deialdietan, polizia kidego bereko kideentzako barne igoerarako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsekin, ezarriko betebeharrak betetzen dituzten Nafarroako polizia kidego guztietako kideentzat irekia.

3. Txanda ireki horretan betetzen ez diren postuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio.

4. Idatz-zati hau aplikatzeari dagokionez, lanpostuak 33. artikuluan ezarritakoaren arabera beteko dira.

5. Administrazio publikoek lanpostu hutsten ehuneko 25, gehienez ere, erreserbatu ahalko dute, oposizio-lehiaketaren bidez, eskatzen den erdi mailako titulazioa izan eta polizia kidegoetan

sartzeko gainerako betebeharrak betetzen dituzten izangaiantzat. Txanda hori egiten denean, gaitzerrenda eta probak berariazkoak izan ahalko, eta dauden lanpostu hutsetatik txandarako erreserbatuko dira laugarrena, zortzigarrena, hamabigarrena, eta ondoz-ondokoak, eta gainerakoei 33. artikuluko araua aplikatuko zaie»».

Zioak: Ez da ezabatu behar polizia kidegoan inspektorearen kategorian erdi mailako tituludunak sartzeko aukera, bestelako kidegoetan edo jardueretan duten lanbide-esperientzia eskain dezaten.

75. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

35. artikuluari buruzkoa den Hemeretzi atala aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen dute 1. eta 2. idatz-zatiek:

“35. artikulua. Inspektore kategorian sartzea.

1. Inspektore kategoriako lanpostu hutsak inspektore-orde kategorian dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa egingen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, inspektore-orde kategorian gutxienez ere hiru urteko antzintasuna izatea eskatuko da eta, orobat, erdi mailako ikasketa titulua. Titulurik ez edukiz gero, kategorian hartan zortzi urte baino gehiagoko antzintasuna izatea.

2. Idatz-zati hau aplikatzeari dagokionez, lanpostu hutsak 34. artikuluan ezarritakoaren arabera beteko dira.

Zioak: 34. artikuluari buruzko zuzenketarekin koherenteak izatea.

Irizpide berri batzuk ezartzea lanbide-karreraren sartzeko, halako moduz non kalitate-mailak igoko baitira.

76. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Hogei atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenak ez du testua egungo hobetzen.

77. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

36. artikuluari buruzkoa den Hogei atala aldatzeko zuzenketa. 1. eta 2. idatz-zatiek honako testua izanen dute:

“36. artikulua. Komisario kategorian sartzea.

1. Komisario kategoriako deialdiko lanpostu hutsak inspektore kategorian dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa egingen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, eskatuko da hiru urteko antzintasuna izatea inspektore kategorian, bai eta eskatutako goi mailako titulazioa ere. Halaber, gutxienez ere hamabi urteko antzintasuna eta eskatzen den goi mailako titulazioa daukaten Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek hartu ahal izanen dute parte.

2. Idatz-zati hau aplikatzeari dagokionez, lanpostu hutsak 34. artikuluan ezarritakoaren arabera beteko dira.”

Zioak: 34. artikuluari aurkeztutako zuzenketarekin koherenteak izatea.

Irizpide berri batzuk ezartzea lanbide-karreraren sartzeko, halako moduz non kalitate-mailak igoko baitira.

78. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogei ataleko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. Komisario kategoriako deialdiko lanpostu hutsak inspektore kategorian dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa egingen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, hiru urteko edo gehiagoko antzintasuna eskatuko da inspektore kategorian, bai eta eskatutako goi mailako titulazioa ere. Halaber, gutxienez ere hamabost urteko antzintasuna eta eskatzen den goi mailako titulazioa daukaten Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek hartu ahal izanen dute parte.”

Zioak: Atal honetan proposatutako testuak aukera ematen du komisario-kategoriara sartzeko kategorian horretarako titulazio berekirik –A maila– eduki gabe. Lanpostu hori goragoko maila batean jartzeak beharrezko egiten du hartara soilik sartu ahal izatea hartarako titulazio berekia dutenak. Betekizun hori ezin izanen da zerbitzuan emandako urteen bidez ordeztu.

79. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikuluko bakarreko Hogeita bat atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenak ez du testua egungo hobetzen.

80. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

37. artikuluari buruzkoa den Hogeita bat atala aldatzeko zuzenketa. 1. eta 2. idatz-zatiek honako testua izanen dute:

“37. artikulua. Komisario nagusiaren kategorian sartzea.

1. Komisario nagusi kategoriako deialdiko lanpostu hutsak komisario kategorian dutenen barneigoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa eginen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, eskatuko da gutxienez hiru urteko antzintasuna izatea komisario kategorian, bai eta eskatutako goi mailako titulazioa ere.

2. Idatz-zati hau aplikatzeari dagokionez, lanpostu hutsak 34. artikuluan ezarritakoaren arabera beteko dira.”

Zioak: Irizpide berri batzuk ezartzea lanbide-karreraren sartzeko, halako moduz non kalitate-mailak igoko baitira.

81. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hogeita bat ataleko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. Komisario nagusi kategoriako deialdiko lanpostu hutsak komisario kategorian dutenen barneigoeraren bidez beteko dira. Horretarako, oposizio-lehiaketa eginen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, eskatuko da gutxienez hiru urteko antzintasuna izatea komisario kategorian, bai eta eskatutako goi mailako titulazioa ere.”

Zioak: Atal honetan proposatutako testuak aukera ematen du komisario-kategoriara sartzeko kategorian horretarako titulazio berekirik –A maila–

eduki gabe. Lanpostu hori goragoko maila batean jartzeak beharrezko egiten du hartara soilik sartu ahal izatea hartarako titulazio berekia dutenak. Betekizun hori ezin izanen da zerbitzuan emandako urteen bidez ordeztu.

82. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikuluko bakarreko Hogeita bi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenak ez du testua egungo hobetzen.

83. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa.

Proposamenaren artikuluko bakarreko Hogeita hiru atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamenak ez du testua egungo hobetzen.

84. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proposameneko artikuluko bakarreko Hogeita hiru atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Hogeita hiru. 39. artikulua honela idatzita geldituko da:

“39. artikulua. Kategoriak eskuratzeko prozedura.

1. Kategoriak eskuratzeari buruz foru lege honetan jasotako prozeduren lehiaketa fasean, gutxienez ere, honakoak baloratuko dira: administrazio publikoetan emaniko zerbitzuak, polizia-eginkizunarekin zerikusia duten prestakuntza-, irakaskuntza- eta ikerkuntza-jarduerak, hizkuntzak jakitea eta betetako lanpostuetan eginiko jarduna, baldin eta erregelamenduz azken horren balorazio objektiboa egiteko prozedura ezarri bada.

2. Oposizio-lehiaketa prozeduretako oposizio faseak honakoak bilduko ditu, gutxienez ere: hautaprobea praktikoak nahiz ezagutzei buruzkoak egitea, exijitzen den ikasketak-mailaren eta lortu nahi den kategoriaren araberrakoak. Era berean, proba

psikoteknikoak ere izanen dira, izangaiak lanpostuaren profil profesiografikoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

3. Foru lege honetan jasotako kategoria- eskuratzeko prozedura guztietan izanen da eskuratu nahi den kategoriarako gaitasun-ikastaro bat gainditu beharra, Nafarroako Segurtasun Eskolak emana.

4. Kategoria desberdinetara sartzeko hautaprobak guztiak objektiboak eta teoriko-praktikoak izanen dira, eta izangaiak aurretiaz ezagutuko dituzte ebaluaziorako parametroak.

5. Erregelamendu bidez garatuko dira aurreko ataletan jasotako xedapenak, Nafarroako polizia kidegoetako kategorietako bakoitzari dagokionez».

Zioak: Ez da bidezko ezartzea, izaera orokorra- rekin, proba psikoteknikoak ez direla bazter- tzaileak. Ez da bidezko, halaber, legean finkatzea baremoko atal bakoitzaren pisua, hori erregela- menduzko garapenari dagokiolako.

85. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legearen 39. artikuluko –hari buruzkoa da lege proposameneko Hogeita hiru atala– 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako edukia izanen du: Hau da testua:

“2. Kategoriak eskuratzeari buruz foru lege honetan jasotako prozeduren lehiaketa fasean, gutxienez ere, honakoak sartuko dira: proba praktiko eta ezagutzei buruzko proba baztertzailak egitea, eskatutako maila akademikoaren arabera eta lortu nahi den enpleguaren arabera, eta plantilla organikoko lanpostuko hizkuntza profileen eskatzen den euskaren ezagutza-mailari buruzko probak, hori ziurtatzen duen titulaziorik aurkezten ez denean. Era berean, proba psikoteknikoak ere izanen dira, izangaiak lanpostuaren profil profesio- grafikoari zenbateraino egokitzen zaizkion neur- tzeko. Proba psikoteknikoak ez dira baztertzailak izanen”.

Zioak: Euskaraz lan egiteko gaitasunari buruz- ko probak sartzea.

86. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legearen 39. artikuluko –hari buruzkoa da lege proposameneko Hogeita hiru atala– 5. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honako edukia izanen du: Hau da testua:

“5. Erregelamendu bidez garatuko dira aurreko ataletan jasotako xedapenak, Nafarroako polizia kidegoetako kategorietako bakoitzari dagokionez. Betiere, arau horien garapenean kontuan hartu behar da prozedura bakoitzeko puntuen guztiz- kotik % 25 antzintasunari buruzkoak izanen dire- la; % 10 merezimenduei buruzkoak; % 60 proba praktikoei edo teoriko-praktikoei buruzkoak; eta % 5 proba psikoteknikoei buruzkoak”.

Zioak: Antzintasuna gehiegi ez baloratzea.

87. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita lau atala kentzeko zuzenketa.

Proposatzen da atal hori kentzea eta, ondorioz, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen 41. arti- kulua mantentzea.

Zioak: Proposatzen den testuak praktiketan dauden funtzionarioek eskubide dituzten lansariak aldatzen ditu soilik, oinarriko lansariei erregela- mendu bidez ezartzen diren lansari osagarriak gehitzen baitizkie. Horrek suposatzen du handia- goak izatea kasuko administrazioek polizia kidego- etako eta udal agenteen hautaprobetan sartzen den prestakuntza ikastaroa egiten duten langileei ordaindu beharreko lansariak, eta horrek gehiegiz- koa dirudi, kontuan hartzen bada horrek suposa- tzen duen kostu handia eta ikastaro horrek izaera selektiboa duela, eta ez lanekoa.

88. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hogeita lau atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Hogeita lau. 41. artikulua honela idatzita geldi- tuko da:

“41. artikulua. Praktiketako funtzionarioak.

1. Nafarroako polizia kidegoetan sartzeko Nafarroako Segurtasun Eskolak ematen duen prestakuntza ikastaroa egitera onartzen diren izangaiak, ikastaroa egin bitartean eta, gaudituz gero, kasuko administrazioak behin betiko kategoriaren jabetza hartzeko finkatzen duen egunera arte, prestakuntza ikastaroaren hasieran hautatu duten administrazio praktikatako funtzionarioak izanen dira, non eta jadanik ez diren Nafarroako polizia kidego bateko funtzionarioak. Erregelamendu bidez egoera horri dagozkion baldintza, eskubide eta betebeharrak arautuko dira.

2. Praktiketara dauden funtzionarioek erregelamendu bidez ezartzen diren oinarrizko lansariak eta lansari osagarriak jasoko dituzte.

3. Nafarroako polizia kidegoetan sartzeko Nafarroako Segurtasun Eskolak ematen duen prestakuntza ikastaroa egitera onartzen diren eta jada Nafarroako polizia kidegoetako bateko funtzionarioak diren izangaiak zerbitzu aktiboan egonen dira ikastaroak irauten duen bitartean, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan."

Zioak: Aurreikustea sarrera ez dadila izan bakarrik polizia kategoriagatik, talde honek aurkeztu duen beste zuzenketa batekin bat etortzeko.

89. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hogeita lau atala (egungo legearen 41. artikuluari dagokiona) ordeztzeko zuzenketa:

41. artikulua 2. idatz-zatiaren amaieran ondoko testua gehitzea proposatzen da: "bai eta familia laguntza ere"

Zioak: Praktiketara dauden funtzionarioak dira, Segurtasun Eskolan prestakuntza hartzen ari direnak eta, horrenbestez, lan-eginkizun berariazkoak egiten ez dituztenak edo osagarriaren bat behar duten unitate zehatzei atxikita ez daudena. Horrenbestez, logikoa dirudi egoerari lotutako oinarrizko ordainsariak baizik ez jasotzea.

90. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Hogeita bost atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Egindako proposamenak ez du egungo testua hobetzen, zeren eta gaur egun dauden mailak berez direnak direlako, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Funtzio Publikoan hori dela-eta aldaketaren bat egingo balitz, Estatu-ko oinarrizko araudira egokitzeko, arau horixe izanen litzateke Nafarroako polizia kidegoetako enpleguen baliokidetasunak jasoko litzukeena.

91. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

43. artikulua aldatzen duen Hogeita sei atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Tokiko poliziako laguntzailearen figura ez desagertzeko egiten dugun proposamenera egokitzeko.

92. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Hogeita sei atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Tokiko poliziako laguntzaileen figuraren mantentzea araupetzen duten zuzenketekin bat.

93. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

43.2 artikuluko Hogeita sei atalean "udal agenteak" dioen tokian, jarraian "eta tokiko poliziako laguntzaileak" gehitzeko zuzenketa.

94. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita zazpi atala kentzeko zuzenketa.

Proposatzen da atal hori kentzea eta, ondorioz, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen 44. artikulua mantentzea.

Zioak: Proposatutako testuak are gehiago malgutzen du polizia kidegoetako langileen mugikortasun bertikal zein horizontala, eta aukera ematen du administrazioetako funtzionarioetako lanpostuetara sartzeko kasuko kidegoan gelditu

behar izan gabe. Hartara, urteko erregulazioan ez bezala, non kasuko kidegoan zortzi urtez egotea eskatzen baita funtzionario gisa sartzeko prozeduratan sustapen txandan parte hartu ahal izateko, proposamenak aukera ematen du zortzi urte horiek edozein kidegotan emandakoak izateko, eta zortzi urteko epe hori bost urtera jaisten du, behar den titulazioa edukiz gero.

Halaber, Kasuko administrazioaren lanpostuetarako lekualdatze-lehiaketetan parte hartzeko, denbora batez lanpostuan egon izateko baldintza jaisten da. Hartara, kasuko kidegoan hamabost urtez egotea eskatu ordez, orain eskatzen da edozein kidegotan zortzi urtez egotea. Hori bai, 50 urteko adina kentzen da lehiaketetara gutxieneko denbora batez egotea eskatu gabe sartzeko adin gisa.

Jotzen da proposamena kaltegarria dela tokiko poliziako kidegoetarako, haietan maiz gertatzen baita langileek joera izaten dutela beste kidego batzuetara aldatzeko, eta horrek berarekin ekartzen du sortutako lanpostu hutsak berriz bete behar izatea, eta horrek dakartzan kostuak ordaindu behar izate. Gainera, planteamendu horrek berarekin dakar ezen lanpostu horietarako berariaz prestatutako langileak etengabe iragaten direla bestelako lanpostuetara, polizia kidegoen barruko espezializazioa eta karrera eragotzita.

95. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikuluko bakarreko Hogeita zazpi atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Hogeita zazpi. 44. artikulua honela idatzita geldituko da:

“44. artikulua. Igoera.

1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen igoera-modua bitakoa da: kategoriaz igotzea, foru lege honetan ezartzen diren prozeduren bitartez, edo graduz igotzea, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuan ezarrita dauden arau orokorretan agindutakoaren bidez.

2. Nafarroako polizia kidegoetako kideek, egiarki bost zerbitzu-urte eman dituztenetik aurrera, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioentzako igoera txandako prozeduratan parte hartzen ahalko dute, betiere dagokion deialdian eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

3. Nafarroako polizia kidegoetako partaideek, egiarki bost zerbitzu-urte eman dituztenetik aurrera, kide diren Administrazioko merezimenduen lehiaketetan eta lanpostuen leku-aldatzeetan parte hartu ahalko dute, beti ere dagokion deialdian eskatutako baldintzak betetzen badituzte”».

Zioak: Testua hobetzea eta “zortzi zerbitzu-urte Nafarroako polizietan (...) edo, eskatutako titulazioa badute, bost zerbitzu-urte” aipua kentzea, adituzera ematen duelako edozein lanpostutara igo daitekeela antzinatasuneko 8 urterekin baina eskatutako titulazioa izan gabe.

96. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikuluko bakarreko Hogeita zazpi atala (egungo legearen 44. artikuluari dago-kiona) ordeztzeko zuzenketa:

«44. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

“3. Foru lege honetan adierazitako kasuez aparte, Nafarroako polizia kidegoetako kideek ezin izanen dute parte hartu poliziaren lanbide izaera edo polizia lanpostua galdu edo aldatzea dakarten lanpostuetarako lekualdatzeetan”».

Zioak: Polizia baten prestakuntzak ahalegin handi bat eskatzen dio Administrazioari. Gainera, prestakuntzarik ez izatea ezin da zuzenean bete, agintaritzaren agenteak direlako eta prestakuntza prozesu luze bat behar dutelako, poliziak izateko ez ezik, unitate espezializatuetan parte hartzeko ere.

Beste lanpostu batzuetan sartzeari dagokionez, edozein unetan egin daiteke, baina egokia dirudi 8 urtez lanpostuan jarraitzeko mugari eustea barneko txandetan parte hartzeko. Ez da ulertzen hura 5 urtera murrizteko arrazoirik dagoenik. Gainera, teknikoki ez da zuzena titulazioaren baldintza gehitzea, zeren eta sartzeko zein lanpostutara sartu nahi den haren baldintzak bete beharko baitira, horren barne dela titulazioari dagokiona.

Lekualdatze lehiaketei dagokionez, arestian esandakoaz gainera eta ikusita polizien legera arte ez zela titulaziorik eskatzen, beste maila batzuetara sartzeko aukera egon da Administrazioko lanpostuak betetzeko eskatzen den titulazioa izan gabe, gainerako funtzionarioen kasuan ez bezala.

97. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarreko Hogeita zortzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hogeita zortzi atalak, 8/2007 Foru Legearen 45. artikulua testu berria ezartzen duenak, ez du inolako hobekuntzarik ekartzen, alderantziz baizik.

Salbu eta izen aldaketa soilak edo beste arau batzuen errepikapenak, funtsean ezarri nahi du berariazko lehiaketako probak ezin direla izan baztertzailak. Zentzugabea da “berezitasunen bat edo profil jakinen bat eskatzen duten” lanpostuak betetzeko probak egitea eta nahiko orokorra ematea, izangaiek profila betetzen ez badute ere.

98. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proposameneko artikulu bakarreko Hogeita zortzi atala (egungo legearen 45. artikuluari dago-kiona) ordeztzeko zuzenketa:

«Destinoen banaketa izenburuko 45. artikulua honako testua izanen du:

“1. Nafarroako Polizia kidegoen barruko destinoak betetzeko, merezimendu –eta merezimen- duen artean antzinasuna ere– eta gaitasun printzipioak hartuko dira kontuan. Honakoak izanen dira sartzeko modalitateak: lehiaketa, zeina sistema arrunta baita, berariazko lehiaketa, aurrekoaren aldagai gisa, eta izendapen askea.

2. Berariazko lehiaketa erabili ahalko da erantzukizun edo prestakuntza bereziak eskatzen diren lanpostuak betetzeko. Sistema horren bitartez sartzeko ezartzen diren hautaprobek objektiboak izan beharko dute, eta izangaiek, aurretik ebaluatuko diren parametroak ezagutu beharko dituzte.

3. Behin destinoa lortuta, hurrengo bi urteetan interesduna ezin izanen da aurkeztu beste inolako deialditara.

Lanpostuan jarraitzeko baldintzak betez gero, eskubidea izanen du sei urteko epean bere desti- noko lanpostua eskain ez dadin.

4. Izen askea erabiliko da bete beharreko lan- postuak berekin badakar unitate organiko baten burutza edo konfiantza berezia eskatzen duten zuzendaritzaz besteko lanpostuak. Zuzendaritzaz besteko lanpostuetarako izendapen librea aparte-

ko kasuetan baizik ez da erabiliko, betiere zioak emanda.

5. Funtzionario bat izendapen askeko sistema- ren bitartez betetzen ari bada lanpostu bat, izen- datu zuen organoak libreki kentzen ahalko du lan- postu horretatik. Hala gertatuz gero, utzi egingen dio zuzendaritza-karguari dagozkion osagarriak jasotzeari, eta, berehala, jatorrian esleituta zuen lanpostura itzuli beharko du. Horretarako, fun- tzionario guztiei jatorrizko lanpostu bat esleitu beharko zaie.

6. Plantilla organikoetan, polizia kidegoetako lanpostuak zerrendatuko dira, eta haietan ezarriko dira lanpostuak, behar bezala sailkatu- rik. Soilik honakoak aipatuko dira berariaz:

a) Lanpostu bakoitza zein mailari atxikita dago- en.

b) Lanpostuaren zenbakia eta izena.

c) Zein unitate organikoren menpean dagoen.

d) Zein egoitzatan edo herritan dagoen kokatu- ta.

e) Zein kategoriatakoentzat erreserbatuta dagoen.

f) Artikulu honetako 1. idatz-zatian aipaturiko lanpostuak betetzeko sistema.

g) Lansari osagarriak.

h) Bigarren jarduerako lanpostuak.

i) Subjektua atxikita dagoen gutxieneko iraun- kortasun aldia, ekonomia eta eraginkortasun arra- zoiei eta lanpostu horretan aritzeko prestakuntza eta gaikuntza ezaugarri bereziei erreparatuta.

j) Bete beharreko eginkizunen ezaugarri bere- ziaz direla eta, subjektuak gutxienez ere zenbat denboraz jarraitu behar duen lanpostuan”».

Zioak: Aparteko izaeraz eta behar adina moti- bazioa dagoenean, kanpo uzten da fun- tzionarioaren profesionaltasunaz harantzago doan konfiantza bat eskatzen duten eta zuzendari- tzakoak ez diren lanpostuetarako izendapena; esate baterako, agintari batzuk babesteko izenda- tutakoa, burutzaren staffekoak, ikerketa batzuekin lotutakoak eta beste.

Lanpostuan jarraitzeko betebeharra sartzan da, zeren eta ulertzen baita ez dela logikoa polizia bat espezializazio argi bat eskatzen duen unitate bate- an sartzea, diruaren eta denboraren aldetik kostu handiak hartuta, eta gero unitate horretatik beste batera joatea Administrazioak egin dituen inbert- sioak amortizatu gabe. Beharrezkoa da lanpos- tuan jarraitzeko gutxieneko baldintza batzuk bete-

tzea (esate baterako, 2 urte) polizia sartzen den unitatean. Halaber, unitate batzuek gutxieneko baldintza batzuk exijitzen dituzte (esate baterako, prestakuntza fisikoari lotutakoak) berezkoak diren eginkizunak zuzen bete ahal izateko.

Ez da ulertzen berariazko lehiaketetan hauta-proba ez-baztertzailak egin ahal izatea; izan ere, unitate batzuetara sartu ahal izateko baldintza batzuk eskatzen badira, argia dirudi halakoetara ezin sartzeari baldintza horiek betetzen ez badira.

99. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

47. artikulua aldatzen duen Hogeita bederatzia atala kentzeko zuzenketa. Oraingo legean dagoen bezala geldituko da.

100. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

47. artikulua aldatzen duen Hogeita bederatzia atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bigarren jarduera aski arautua dago aldatu nahi den foru legean. Beraz, ez da bidezko hura aldatzea.

101. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Hogeita bederatzia atala, 47. artikuluari buruzkoa, kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamena planteatutako terminoetan aplikatzeak berarekin dakar administrazio publiko-ei kostuak asko handitzea.

102. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita bederatzia atala kentzeko zuzenketa.

Proposatzen da atal hori kentzea eta, ondorioz, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen 47. artikulua mantentzea.

Zioak: Egungo erregulazioak soilik jasotzen du eskubide hori bigarren jarduerarako iragatea kasu-

ko administrazioak ofizioz egiten diren kasuetarako.

Interesdunaren eskariz egiten den kasuen aitortpena egiteak berarekin ekar dezake horrelako eskariak ugaltzea, eta horrek eragingo luke lanpostu hutsak bete behar izatea eta, horrenbestez, lansarietan kopuru handiagoak erabili behar izatea.

103. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hogeita bederatzia atala (egungo legearen 47. artikuluari dagokiona) ordeztzeko zuzenketa:

«47. artikulua aldatu nahi da, eta testu hau izan du:

a) 2. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“2. Adin batera iritsita (inola ere ez berrogeita hemezortzi urtetik behera), edo gaitasun fisiko edo psikikoak murrizten diren kasuetan, Nafarroako polizia kidegoetako kideak bigarren jardueraren egoera administratibora pasatu ahalko dira eta, erretiroaren adinera iritsi aurretik, interesdunak eskatuta nahiz ofizioz, gaitasun fisikoak nahiz psikikoak gutxituz gero, bigarren jarduerako zerbitzuetan eman ahalko zaie destinoa:

a) Dagokien kidegoan bertan.

b) Nafarroako beste polizia batzuetan, betiere kasuko administrazioek horretarako lankidetzaren hitzarmen aproposa sinatu badute.

c) Administrazio bereko beste lanpostu batean, prestakuntzarekin, segurtasun arloko nahiz beste arlo batzuetako politikekin, edo polizia administratiboko jarduerekin (adierarik zabalenean) zerikusituz zuzena duena, administrazio horren eskumenen esparruan; konparazio batera, zehapen espedienteen tramitazioetan laguntzea, lan administratibo edo exekutiboak, zaintza, kontrola, ikuskapenak eta bestelakoak, betiere langilearen mailarentzat eta jakintzarentzat egokiak badira eta ahalegin fisiko, arrisku edo zailtasun gutxiagokoak badira.

b) 5. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“5. Bigarren jarduerako egoeran dauden Nafarroako polizia kidegoetako kideek, beren kategoriarik dagozkion oinarritzko ordainsariak eta aitorturik dituzten ordainsari pertsonalak jasoko dituzte, egiazki betetzen duten lanpostuak dituen osagarriez gainera”».

Zioak: Bigarren jarduerara pasatzeko adina 58 urtera igotzen da. Gaur egungo elikadura, higiegi, kirol, irakurketa eta abarreko ohiturak direla eta, gaurko langileek 55 urte dituztenean ez dauzkate orain dela urte gutxi batzuk zeuzkaten ezaugarri berak, baldintza fisiko eta psikikoak gutxitzeari dagokionean. Hori dela eta, egokia dirudi bigarren jarduerara pasatzeko atalasea aldatzea, atalase hori duela zenbait hamarkadatan finkatu baitzen.

Egungo koiunturan, ez dirudi egokia denik osagarri iragankor bat sartzeari ordainsariak berdintzeko, zeren eta bat etorri behar baitute betetzen den lanpostuari dagokionekin. Bestela, gertatuko litzateke lan bera egiten ari diren poliziek soldata desberdinak dituztela, unitate desberdinetatik heldu direlako.

Ez du zentzurik enplegu-sustapeneko prozesuetan parte hartzeko aukera jasotzea kasuko polizia bigarren jarduerako egoeran dagoenean.

104. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8/2007 Foru Legearen 47. artikuluarari –hari buruzkoa da lege proposameneko Hogeita bederatzia atala– d) letra gehitzeko zuzenketa. Honako edukia izanen du: Hau da testua:

“d) 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten tokiko entitateek bigarren jarduerako lanpostuak eskaini beharko dizkiete 55 urtetik gorako tokiko poliziaren kidegoko kideei, betiere lanpostu horiek guztizko plantillaren % 20 gainditzen ez badute. Eskarien kopuruak portzentaje hori gainditzea ekartzen badu, eskubide hori duten tokiko poliziaren kidegoko kideak Nafarroako Gobernuak jarritako lanpostuetan sartuko dira, eta Gobernuak bera izanen da modu subsidiarioan haiez arduratuko dena eta egokitzat jotzen duen destinoko plantillan bereganatuko dituenak.”

Zioak: Tokiko poliziaren kidego txikien “bigarren jarduera”

105. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarrek Hogeita hamar atala (egungo legearen 49. artikuluarari dagokiona) ordeztzeko zuzenketa:

«49. artikulua aldatu nahi da, eta testu hau izanen du:

a) e) letrak testu hau izanen du:

“e) Lanaldia eta oporrak eta baimenak hartzeko berriazko modua erregelamendu bidez xedatuko dira. Hartara, urtea hasi aurretik behin-behineko lan-egutegiak ezarriko dira; haien arabera, lanaldia eguneko edo gaueko txandatan izan ahalko da, eta guardia lokalizatuak nahiz bertan egotekoak ezarri ahalko dira, bai eta jai-egunetan lan egin behar izatea ere. Egutegia egiteko, funtzionario bakoitzak oporrei buruz dauzkan aurreikuspenak ezagutu beharko dira. Aurrez, hilero nahiz finkatzen den maiztasunarekin, behin betiko egutegiak ezarriko dira, jardueraren aurreikuspenaren eta oporraldien finkapenaren arabera. Betiere, kontuan hartuta polizia-eginkizunaren ezaugarriak bereziak direla eta oinarritzko zerbitzu publiko hori berehala eman beharra eska daitekeela eta ez dagoela langileak aldi baterako ordezkapenak egiteko edo zerbitzua indartzeko sistemak baliatzerik, lan-egutegi horiek muga izanen dute segurtasun publikoaren beharrezan (behar bezala justifikatuak), larrialdiak artatzea eta babes zibila, eta edozein unetan aldatu ahalko dira, aurreikusi gabeko ingurubarrak gertatuz gero, polizia-zerbitzua ematen dela ziurtatzeko”

b) g) letrak testu hau izanen du:

“g) Beren eginkizunetan egindakoengatik erantzukizuna eskatzen zaien auzi guztietan, atxikita duen administrazio publikoko profesionalek laguntza emateko, ordezkatzeko eta aldeztuko eskubidea izanen dute, administrazioaren kontura, baldin eta, hasiera batean, foru lege honetako 4. artikuluan jasotzen diren jardunaren oinarritzko printzipioen arabera direla uste bada. Salbuespeneko kasuetan, kasuko administrazio publikoak ezin baldin badu zerbitzua bere bitartekoekin eman, baimena eman ahalko da administrazio horretaz kanpoko bitartekoez baliatzeko, betiere haren kargura.

Epaillearen erabaki irmoan egiaztatzen bada erantzukizuna eskatzeko arrazoia diren egitateak gertatu zirela jardun poliziala erregulatzen dituzten arauen aurka, Administrazioa kasuko atzerabide-ekintzaz baliatu ahal izanen da”

c) k) letra berria erantsi da, testu honekin:

“k) Non diren jakiteko biderik zuzenena jakinarazi beharko diote administrazioari”

d) l) letra berria erantsi da, testu honekin:

“l) Polizia-funtzionarioaren ezinbesteko betebeharra da eginkizun polizialak eskatzen duen prestakuntza fisiko bereziari eustea eta, beraz, ez da horren ordain ekonomikorik emanen, ezta denbora-ordainik ere.

Alabaina, zenbait unitaterentzat, plantilla organikoan hala ezarrita ageri denean, prestakuntza fisiko berezia eskatu ahalko da, eta proba fisiko bereziak ezarri ahalko dira postuan jarraitzeko baldintza modura”».

Zioak: Beharrezkoa zen, poliziak kudeatzeko, kontuan hartzea polizia-eginkizunaren ezaugarriak bereziak direla-eta oinarritzko zerbitzu publiko hori berehala eman beharra eska daitekeela eta ez dagoela langileak aldi baterako ordezkapenak egiteko edo zerbitzua indartzeko sistemak baliatzerik. Hori dela eta, polizien betebeharrak eta eskubideak errealitate horri egokitu behar zaizkio.

106. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita hamaika atala kentzeko zuzenketa.

Proposatzen da atal hori kentzea eta, ondorioz, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen 50. artikulua mantentzea.

Zioak: Lansari berrik sartzeak berarekin dakar, zalantzarik gabe, une hauetan onartzen ziala den lansari-handitze bat, gutxienez ere tokiko polizia-aren kidegoen esparruei dagokienez eta halakorik izan ez eta beren plantillekin udal agenteen lanpostuak dituzten udalei dagokienez. Horri dagokienez, esan beharra dago lege proposamen berriak azterlan bat beharko lukeela, non ordainsari berri horien eragina zenbatetsiko baitzen, bai eta, kasua bada, kasuko administrazioek gastu hori beren gain hartzeari buruzko berriazko xedapenak ere. Gainera, ordainsari horietako batzuek suposatzen dute poliziako funtzionarioei aldatzea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak berezko dituen ordainari batzuk, kontuan hartu gabe egun dauden osagarrien bitartez jada ordaintzen ari diren kontzeptuak ordaintzen dituztela.

107. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita hamaika atalean, 50.1.B) artikuluko e) letra kentzeko zuzenketa.

108. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Hogeita hamaika atala kentzeko zuzenketa, 50. artikuluko 1.B idatz-zatiari dagokionez. Honakoak kendu nahi dira, zehazki:

– 1.B, c) letra.

– 1.B, e) letra.

– 1.B, f) letra.

Zioak: Lansari osagarriak hiru kasutan biltzea: berriazko osagarria, lanpostu-osagarria eta bigarren jardueran aritzeagatik aldi baterako osagarri pertsonala.

Lansari-taulak argitu eta antolatzea, foru administrazioarako eta tokiko administrazioarako kostu ekonomikoa baloratuta.

109. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Hogeita hamaika atalari gehiketa egiteko zuzenketa, 50. artikuluko 1.C idatz-zatiari (bestelako ordainsariak) dagokionez. Honako letra berria gehitzen zaio:

– 1.C letra. Lehenagoko ordainsariak foru lege honetan adierazitakoa aplikatuz ateratzen dena baino handiagoak izateagatik ematen diren kontentsazioak”.

Zioak: Lehendik finkatuta dauden ordainsariak errespetatzea.

Lansari-taulak argitu eta antolatzea, foru administrazioarako eta tokiko administrazioarako kostu ekonomikoa baloratuta.

110. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hogeita hamaika atala (egungo legearen 50. artikuluari dagokiona) ordezteko zuzenketa:

50.1 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioek ondoko kontzeptu hauei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte, ez besterik:

A) Norberaren oinarrizko ordainsariak:

- a) Mailari dagokion hasierako soldata.
- b) Graduari dagokion ordainsaria.
- c) Antzinasun saria.

B. Ordainsari osagarriak:

- a) Berariazko osagarria.
- b) Lanpostuaren osagarria.

C. Bestelako ordainsariak:

- a) Zerbitzuan izandako gastuen kalte-ordaina.
- b) Egindako bidaien kalte-ordaina.
- c) Bizilekua aldatzea dakarren nahitaezko lekualdatzeagatik ematen den kalte-ordaina.
- d) Familia laguntza.
- e) Aparteko orduen konpentsazioa.
- f) Jaiegunetan lan egitearen konpentsazioa.
- g) Gauaz lan egitearen konpentsazioa.
- h) Langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartzeagatik eta prestakuntza ikastaroak emateagatik ematen diren konpentsazioak.
- i) Lehenagoko ordainsariak foru lege honetan adierazitakoa aplikatuz ateratzen dena baino handiagoak izateagatik ematen diren konpentsazioak.”

Zioak: Egungo koiunturan ez dirudi logikoa denik ordainsarien sistema indarduna aldatzea. Inolaz ere ez du egokia ematen gainerako funtzionarioen ordainsari-kontzeptuak eta, gainera, polizientzako berariazko beste batzuk aplikatzea, ageriko bikoiztasunak sortuta.

Ordainsari kontzeptu berriak sartzeak suposatzen du kostua asko handitzea, baina hori ez dago justifikatuta.

111. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

51. artikuluari buruzko Hogeita hamabi atala kentzeko zuzenketa. Foru proposamenaren eduki guztia kentzea, puntu horri dagokionez.

Zioak: Proposamenak ez du hobetzen araudi indardunaren edukia.

Lansari-taulak argitu eta antolatzea, foru administraziorako eta tokiko administraziorako kostu ekonomikoa baloratuta, beren eskumenak bete ahal ditzaten.

112. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita hamabi atala kentzeko zuzenketa.

Proposatzen da atal hori kentzea eta, ondorioz, Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen 51. artikulua mantentzea.

Zioak: Lansari berrik sartzeak berarekin dakar, zalantzarik gabe, une hauetan onartzen ziala den lansari-handitze bat, gutxienez ere tokiko polizia-aren kidegoen esparruei dagokienez eta halakorik izan ez eta beren plantillekin udal agenteen lanpostuak dituzten udalei dagokienez. Horri dagokionez, esan beharra dago lege proposamen berriak azterlan bat beharko lukeela, non ordainsari berri horien eragina zenbatetsiko baitzen, bai eta, kasua bada, kasuko administrazioek gastu hori beren gain hartzeari buruzko berariazko xedapenak ere. Gainera, ordainsari horietako batzuek suposatzen dute poliziako funtzionarioei aldatzea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak berezko dituen ordainari batzuk, kontuan hartu gabe egun dauden osagarrien bitartez jada ordaintzen ari diren kontzeptuak ordaintzen dituztela.

113. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hogeita hamabi atala (egungo legearen 51. artikuluari dagokiona) ordeztzeko zuzenketa:

51.3. artikulua kentzen da.

Zioak: Proposamenean ezartzen diren osagarriek guztiz onartezinak eta justifikaezinak diren kostu-igoerak dakartzate.

Adibidez, berariazko osagarria igotzen da gutxienez ere % 4, txandakako lanaldirengatik % 6a, C mailari dagokion osagarria, gaur egun % 12 dena, burutzarengatik % 10...

Bigarren jarduerarengatik aldi baterako osagarri pertsonala kentzen da.

114. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Hogeita hamabi atalean 51.2 artikuluko testua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da

“51.2 artikulua:

Lanpostuko osagarriaren bidez zailtasuna, dedikazio eta erantzukizuna eta prestakuntza fisikoan emandako denbora saritzen dira, bai eta eskatzen den prestakuntza tekniko berezia ere.

Foruzaingoa jaso beharreko gutxieneko kopurua mailari dagokion hasierako soldataren gaineko portzentaje bat izanen da. Honela xehakatuko da kategorien arabera:

- a) Polizia: % 6,45
- b) Kaboa: % 17
- c) Inspektoreordea: %10
- d) Inspektorea: % 17
- e) Komisarioa: % 5
- f) Komisario nagusia: % 17

Nafarroako gainerako poliziaren kidegoak bederatzigarren xedapen gehigarrian ezartzen duenak arautuko ditu.

Osagarri horren gehieneko kopurua ez da izanen kasuko mailaren hasierako soldataren % 95etik gorakoa. Katgoria bereko lanpostu desberdinen artean kontzeptu horrengatik jasotako lansariaren gehieneko aldea % 7koa izanen da. Hala-ber, errespetatuko da, polizia katgoria desberdinetako lanpostu osagarria ezartzerakoan, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuko A, B eta C mailen artean ezarritako proportzionaltasun indizea C mailarako oinarritat harturik polizia katgoria; B mailarako, inspektore-orde katgoria; eta A mailarako, komisario katgoria. Maila berean katgoria bat baino gehiago dagoenean, haien arteko proportzionaltasun bat ezarriko da, eta hartarako kontuan hartuko dira goragoko eta behegoko katgorien proportzionaltasun indizeak.

Lanpostu osagarriaren zenbatekoa, etorkizuneko soldata igoeretan, beharrezkoa den katgoria guztietan izoztuko da, arestian adierazitako proportzionaltasun indizera iritsi arte”

115. ZUZENKETA**MANU AYERDI OLAIZOLA ETA
PATXI LEUZA GARCIA
FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA**

8/2007 Foru Legearen 51. artikuluari buruzko Hogeita hamabi atala aldatzeko zuzenketa.

51.2 artikulua f) letraren hurrengo lerroaldea aldatzea proposatzen da, Foru Lege proposamenaren Hogeita hamabi Atalean jasotzen dena. Hona testua:

“51. artikulua. Lansari osagarriak

(...)

f) Komisario nagusia: % 17

Osagarri horren gehieneko kopurua ez da izanen kasuko mailaren hasierako soldataren % 95etik gorakoa. Polizia kidego bakoitzaren barruan, katgoria bereko lanpostu desberdinen artean kontzeptu horrengatik jasotako lansariaren gehieneko aldea ezartzeko kanpoko azterlan bat eginen da lanpostu bakoitzaren berezitasunen balorazioa egiteko.

Lanpostuko osagarriaren kopurua,…”

Zioak: Ez zaigu arrazoizkoa iruditzen alde zurretik % 7ko kopurua ezartzea, zorrotzasunez prestatutako kanpoko euskarri bat izan gabe.

116. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

51. artikuluari honako testua gehitzeko zuzenketa:

“Prestakuntza fisikoarengatik konpentsaziorako eskubidea aitortuta daukaten Nafarroako polizia-kidegoetan, gaur egun aitortuta dauzkaten 126 orduetan lan egiteko betebeharrak ezartzen da, eta kobrantza hori aitortzen da, horretarako proba fisikoak egin behar izan gabe. Kasuan kasuko ordainsaria lanbide-maila bakoitzerako oro har ezarrita dagoena izanen da.

Burutzako osagarria izanen dute katgoria baten barrenean aginte-egoera berezian aritzea dakarten lanpostuek, hori horrela jasota dagoenean plantilla organikoan. Kontzeptu horri dagokion saria ezin izanen da mailako hasierako soldataren 100eko 10etik gorakoa izan.

Bigarren jardueran aritzeagatik ordaintzen den aldi baterako osagarri pertsonala foru lege honen

47.5 artikulua bigarren lerroaldean ezarritako kasuetan aplikatuko da. Horretarako baldintzak eta prozedura erregelamendu bidez finkatuko dira.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeak adostasun txostena eman ondoren, erregelamendu bidez zehaztu ahalko ditu Nafarroako tokiko polizietako kideei ordaindu beharreko ordainsari osagarriak, foru lege honetako xedapenekin bat.

Zioak: Ordainsariei buruzko atalak argitzea. Ordainsariak zerbitzuaren prestazio errealarri egokitzea.

117. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

56. artikulua aldatzen duen Hogeita hamahiru atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foruzaingoaren esparruko negoziatziorako mahai sektorialak gainerako mahai sektorialen negoziatio-ahalmen bera izan behar du. Kontrakoa bazterkeria nabarmena izanen litzateke gainerako enplegatu publikoekiko.

118. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Hogeita hamahiru atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Egindako proposamenak suposatzen du haustea indarrean dagoen eta Nafarroako administrazio publikoen multzoari eta Foru Komunitateko Administrazioari aplikatzen zaizkien lan-baldintzen negoziatioaren sistema orokorra; sistema hori sindikatuekin erdietsitako akordioaren arabera da, eta haien arabera gai ekonomikoetarako buruzko akordio guztiak Funtzio Publikoaren Mahai Orokorraren eskumenekoak dira. Hori dela eta, onartezina da, gainerako kolektiboekiko baztertzaila izateaz aparte (bereziki: hezkuntza, osasuna...) mahai sektorial bat egituratzea "gaintasuna izanen duena kidegoarekin lotutako alderdi guztietan akordioak lortzeko".

119. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Hogeita hamalau atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Diziplina araubideak iraunkorra izateko bokazioa eduki behar du, segurtasun juridikoko arrazoi argiengatik. Ez dugu ulertzen egungo testua aldatzeko zein arrazoi dauden.

120. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikulua bakarreko Hogeita hamalau atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Hogeita hamalau. 57. artikulua honela idatzita geldituko da:

“57. artikulua. Legezketasun eta erantzukizun printzipioak.

1. Nafarroako polizia kidegoetako langileak beren eginbeharrak ez betetzeagatik zehatuko dira bakar-bakarrik ez-betetze hori, foru lege honen arabera, diziplina hutsegitea denean.

2. Diziplina erantzukizunak ez du galarazten funtzionarioak izan dezakeen erantzukizun zibil edo penala.

3. Hutsegitea egitera bultzatzen dutenek eta hutsegitea onartzen duten nagusi hierarkikoek egileen erantzukizun berbera izanen dute. Era berean, hutsegite bat estaltzen dutenek maila baxuagoko hutsegitea eginen dute. Estalitako hutsegitea arina bada, maila bereko hutsegitea egotziko zaio estaltzaileari, eta ohartarazpena eginez zehatuko da.

Hutsegitea dakarren egintza baten berri izanda, hierarkian gora dagoen nagusi eskudunari lehenbailehen ez jakinaraztea estalketatzat hartuko da.

4. Diziplina erantzukizuna kasu hauetan iraungiko da: zehapena beteta, hilez gero edo hutsegitea edo zehapena preskribatuta».

Zioak: Administrazio Publikoaren aldetik diziplina-zehapenen amnistia edo indultua zehurtziaren arabera emateko aukera, zuzenbide estatuaren printzipioen aurkakoa delako erabat.

121. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikuluko bakarreko Hogeita hamabost atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Diziiplina araubideak iraunkorra izateko bokazioa eduki behar du, segurtasun juridikoko arrazoi argiengatik. Ez dugu ulertzen egungo testua aldatzeko zein arrazoi dauden.

122. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Lege proposamenaren Hogeita hamabost atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arau-hausteen preskripzio epeak gutxitzea ez da ona izaten agenteen lan egokirako.

123. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proposameneko artikuluko bakarreko Hogeita hamabost atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Hogeita hamabost. 58. artikulua honela idatzita geldituko da:

“58. artikulua. Diziiplina hutsegiteen sailkapena eta preskripzioa.

1. Diziiplina hutsegiteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke. Hutsegite arinek hilabeteren buruan preskribatuko dira, larriek urtebeteren buruan eta oso larriek hiru urteren buruan.

2. Hutsegiteen preskripzio epea hutsegitea egin denean hasten da kontatzen.

3. Preskripzioa diziiplina prozedura hasten denean etenen da”».

Zioak: Egokia da hutsegite arinetan eta larrietan poliziak gainerako funtzionarioekin parekatzea, baina gauza bera egin behar da hutsegite oso larrietan, eta bi urte ezarri ordez hiru urte ezaritzea.

124. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikuluko bakarreko Hogeita hamasei atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Diziiplina araubideak iraunkorra izateko bokazioa eduki behar du, segurtasun juridikoko arrazoi argiengatik. Ez dugu ulertzen egungo testua aldatzeko zein arrazoi dauden.

125. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikuluko bakarreko Hogeita hamazazpi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Diziiplina araubideak iraunkorra izateko bokazioa eduki behar du, segurtasun juridikoko arrazoi argiengatik. Ez dugu ulertzen egungo testua aldatzeko zein arrazoi dauden.

126. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikuluko bakarreko Hogeita hemezortzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Diziiplina araubideak iraunkorra izateko bokazioa eduki behar du, segurtasun juridikoko arrazoi argiengatik. Ez dugu ulertzen egungo testua aldatzeko zein arrazoi dauden.

127. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

8/2007 Foru Legearen 61. artikuluari –hari buruzkoa da lege proposameneko Hogeita hemezortzi atala– 18. idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Honako edukia izanen du: Hau da testua:

“18. Udaletako, autonomia erkidegoko edo estatuko kargu publikoekiko errespetu falta, mehatxua edo eraso.

Zioak: Hautetsiei eraso egitea arau-hauste oso larritzat jotzea.

128. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Hogeita hemeretzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Diziplina araubideak iraunkorra izateko bokazioa eduki behar du, segurtasun juridikoko arrazoi argiengatik. Ez dugu ulertzen egungo testua aldatzeko zein arrazoi dauden.

129. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proposameneko artikulua bakarreko Hogeita hemeretzi atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Hogeita hemeretzi. 62. artikulua honela idatzita geldituko da:

“62. artikulua. Zehapenak.

1. Hutsegite arinek zehapen hauek jaso ditakete:

a) Ohartarazpena.

b) Enplegu-soldaten etenaldia, egun batetik lau egunera bitartekoa, antzinasuna galdu gabe, ondorio guztietarako.

2. Hutsegite larriek zehapen hauek jaso ditakete:

a) Beste lanpostu batera aldatzea, beste herri batean edo herri berean, eta kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe.

b) Enplegu-soldaten etenaldia, bost egunetik hogeita hamarrera bitartekoa, antzinasuna galdu gabe, ondorio guztietarako.

c) Eginkizunen etenaldia, hiru hilabetez gehiezez.

3. Hutsegite oso larriek zehapen hauek jaso ditakete:

a) Eginkizunen etenaldia, hiru hilabetetik hiru urtera bitartekoa.

b) Zerbitzutik kentzea.

Eginkizunak eteteak funtzionario izaerari dagozkion eskubide guztiak galtzea ekarriko dio zehapena jaso duen funtzionarioari, zehaztuko den denborarako. Zerbitzutik kentzeak funtzionario izaera galtzea ekarriko du berekin.

4. Zehatua gutxien kaltetzen duen moduan beteko dira zehapenak.

Ondorio horietarako, enplegu-soldaten etenaldia honako proportzioaren arabera egingen da: benetan lan egindako lau egun eta zerbitzurik gabeko egun bat.

5. Ez dira zehapen gisa joko puntualtasunean atzeratzeagatik edo lanera arrazoirik gabe ez etortzeagatik lansariei proportzioan eginiko murrizketak. Murrizketak zuzenean egingen dira eta beti.

6. Diziplina zehapenak espediente pertsonaletan jasoko dira, zer hutsegitek eragin dituzten adierazirik.

7. Zehapenak mailakatzeko kontuan hartuko dira, egite eta ez-egiteez gain, honakoak ere, proportzionaltasunaren printzipioarekin bat:

a) Erantzuleen asmoa eta faltaren izaera.

b) Zerbitzuen funtzionamendu egokian sortutako nahasmendua.

c) Administrazioari edo herritarrei eragindako kalte eta galerak.

d) Hutsegiteetan berrerortzea.

e) Hutsegitean edo ez-betetzean izandako parte-hartzearen maila.

f) Segurtasun publikoari begira izandako garrantzia.

Hutsegite oso larriengatik zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira, hutsegite larriengatikoak urtebeteren buruan eta hutsegite arinengatikoak, berriz, hilabeteren buruan”».

Zioak: Nahitaezko lekualdatzearen zehapena gainerako funtzionarioekin parekatzea. Proposameneko testua inkoherentea da, lekualdatzea aurreikusten delako beti bizilekuaren aldaketarik gabe, eta gainera ez dago kalte-ordainik, nahiz eta agerikoa izan kalte-ordaina bizilekuaren aldaketari lotua dagoela.

Ez da bidezko kontuan hartzea lanbide-historiala inguruabar aringarri gisa, gainerako funtzionarioentzat erabili gabe, emaitza bidegabea sortuko lukeelako; alegia, bi poliziak egindako huts egite beragatik zehapen ezberdina ezarriko litzateke, huts-egitetik kanpoko inguruabarrengatik, adibidez, polizia bakoitzaren aldeko curriculumagatik.

130. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikuluko bakarrek Berrogei atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Diziplina araubideak iraunkorra izateko bokazioa eduki behar du, segurtasun juridikoko arrazoi argiengatik. Ez dugu ulertzen egungo tes-tua aldatzeko zein arrazoi dauden.

131. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikuluko bakarrek Berrogeita bat atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Diziplina araubideak iraunkorra izateko bokazioa eduki behar du, segurtasun juridikoko arrazoi argiengatik. Ez dugu ulertzen egungo tes-tua aldatzeko zein arrazoi dauden.

132. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa.

Proposamenaren artikuluko bakarrek Berrogeita bi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako polizia araubide juridikoa berariazkoa da. Hori dela eta, haren aurreikuspen edo printzipio orokorrak errespetatu beharko dira beti.

133. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen gehigarria kentzen duen Berrogeita hiru atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Interesgarria da administrazio publikoen arteko elkarrekotasun akordioen beharra mantentzea, bi administrazioen artean lekualda-ketak egiteari begira.

134. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa.

Proposamenaren artikuluko bakarrek Berrogeita hiru atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat.

135. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Seigarren xedapen gehigarria aldatzen duen Berrogeita lau atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Toki-entitateen menpe dauden polizia langileei dagokien guztia berariazko foru lege batek arautu beharko du.

136. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko artikuluko bakarrek Berrogeita lau atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Berrogeita lau. Seigarren xedapen gehigarria honela geldituko da:

“Seigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako polizia kidegoetako polizia eta kabo kategorietan sartzeko prozedurei dagokienez –foru lege honetako 32. eta 33. artikuluetan daude araututa–, polizia parekatuta daudela joko da Nafarroako Segurtasun Eskolak polizia izateko ematen duen prestakuntzako oinarrizko ikastaroa gainditua duten udal agenteak; Nafarroako Segurtasun Eskolak emandako ziurtagiriaren bidez frogatu beharko dute ikastaroa gaindituta dutela.

Halaber, udal agenteei aplikatzekoa izanen zaie foru lege honen 4, 28, 29, 30, 31, 39, 40, 41, 43 eta 44. artikuluetan ezarritakoa, bai eta IV. tituluko III. kapituluaren 7. atalean eta IV. tituluko III. kapituluaren 11. atalean ezarritakoa ere”».

Zioak: Udal agenteei aplikatuko zaizkien Foru Legeko manuak osatzea.

137. ZUZENKETA**ARALAR-NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Seigarren xedapen gehigarriko bigarren lerrokada –hari buruzkoa da Berrogeita lau atala– aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen luke:

Nafarroako polizia kidegoetako polizia eta kabo kategorietan sartzeko prozedurei dagokienez –foru lege honetako 32. eta 33. artikuluetan daude araututa–, poliziei parekatuta daudela joko da Nafarroako Segurtasun Eskolak polizia izateko ematen duen prestakuntzako oinarrizko ikastaroa gainditua duten udal agenteak; Nafarroako Segurtasun Eskolak emandako ziurtagiriaren bidez frogatu beharko dute ikastaroa gaindituta dutela.

Halaber, udal agenteei aplikatzekoa izanen zaie foru lege honen 4., 29., 31., eta 41. artikuluetan ezarritakoa, bai eta IV. tituluko III. kapituluaren 7. atalean eta IV. tituluko III. kapituluaren 11. atalean ezarritakoa ere».

Zioak: Proposatutako zuzenketa honako honetan datza: bigarren lerrokada bat gehitu behar da, non ezartzen baita udal agente batzuei aplikatzekoa zaiela polizientzako legean araututako alderdi batzuk. Alderdi horietatik, aplikazioa dela eta zalantzak planteatzen ditu zuzenketak aldatu nahi duen 44. artikulua. Izan ere, aplikazio horrek berarekin dakar agenteak sustapen txandaren bitartez sartu ahal izatea edozein administrazio publikotako lanpostuetan, eta beren administrazioak poliziakoak ez diren lanpostuetarako deitzen dituen lekualdatze lehiaketetan parte hartu ahal izatea. Horrekin, areagotzen da halako langileak dituzten toki entitateetan jada dagoen arazoa; izan ere, etengabe bete behar izaten dituzte horrelako langileek hutsik uzten dituzten lanpostuak. Berriz ere sustatzen ari da bereziki prestatuta dagoen langileak berariazko prestakuntza hori eskatzen ez duten lanpostuetara sartzea, eta horrek berehala dakar berarekin lanpostu hutsak bete behar izatea eta toki entitateek, berriz ere, prestakuntza kostu batzuk beren gain hartu behar izatea.

138. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa.

Proposamenaren artikulua bakarreko Berrogeita Bost atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Agerikoa dirudi ezen, goi mailako enpleguak eskuratzeko, kasuko probaz bainera, lanpos-

tuan egoteko denbora laburragoa eskatzen bada, logikoa dela esperientzia guztia kontuan hartzea, baita behin-behinekotasun aldiena ere. Horrenbestez, ez dugu ulertzen egungo testua kentzea, zeina, gainera, polizientzat onuragarria baita.

139. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Kentzeko zuzenketa.

Proposamenaren artikulua bakarreko Berrogeita Sei atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da logikoa polizia funtzionario batek sustapen prozedura baten bitartez administrazio batetik beste batera joaten bada, esate baterako kago izatetik inspektoreorde izatera igoz, jatorrizko administrazioko lanpostuari eustea eta hartara nahi duenean itzuli ahal izatea, horrek dakarren bikoiztasunarekin eta distortsioarekin.

140. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Bederatzigarren xedapen gehigarriari buruzkoa den Berrogeita zazpi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Xedapen indardunak aukera ematen du tokiko poliziaren kidegoetako langileen egutegiak eta lanaldiak gerta daitezkeen berariazko beharri-zanen arabera birdoitzeko; esate baterako, ekitaldietan edo herriko jaietan. Aukera hori kenduta, kalte larria eraginen zaie lanpostu horien titularrak diren entitateen antolamendu-ahalmenei, eta aparteko neurriak hartzera behartuta egonen dira horrelako beharri-zan bereziak sortzen diren kasuetan. Horrek, zalantzarik gabe, lansariak nabarmen handitzea ekarriko du berarekin.

141. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Proposamenaren artikulua bakarreko Berrogeita zazpi atala aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

«Xedapen gehigarri bat, bederatzigarrena, gehitu da. Testu hau izanen du:

“Lanaldi- eta egutegi-araubideak zerbitzuaren beharren ondorioz aldatzea:

1. Lanaldien eta egutegien araubidearentzako kalterik gabe, kontuan hartuz polizia-zerbitzua dela zerbitzu publiko bat modu iraunkorrean, bat-batean eta aitzakiarik gabe eman beharrekoa, Nafarroako polizia kidegoetako burutzek, zerbitzuaren beharrak direla-eta, edozein unetan aldatu ahalko dituzte lanaldi- eta egutegi-araubideak; kasu horietan, behar diren denbora-ordain balioki-deak emanen dira edo, kasuan kasuko lanaldi orokorraren urteko zenbatekoa gainditzen denean, aparteko orduak ordainduko dira.

2. Lanaldia egun-kopurutan neurtzen den araubideetan, lanaldi bakoitzak gehienez ere 10 lanordu benetako irauten duela joko da, eta ordu horien barruan sartuko dira bai benetan lanean aritutako denbora bai eta zerbitzua emateko prest amandako denbora ere. Soilik ordainduko dira aparteko orduak baldin eta urteko lanaldia aplikatuta ateratzen den lanegun kopurua gainditzen bada.

3. Ordu-tegi malguko lan araubideetan, aparteko orduak sortzea, denborari nahiz diruari dagokionez, gertatuko da kasuko lanaldi orokorraren urteko kopurua gainditzen denean”».

Zioak: Polizia zerbitzua egoki emateko ezinbestekoa da poliziaren lanaldia zerbitzuaren beharri-zanen arabera egokitzea, behar diren konpentsazioak emanda, zeinetan kontuan hartu beharko baita poliziarentzako berariazko lansari osagarri bat badagoela, besteak beste, inguruabar horixe ordaintzen duena.

142. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bosgarren xedapen gehigarri berria sartzen duen Berrogeita zortzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Udal agenteei edo polizia-eginkizunak betetzen dituen gainerako langileei dagokien oro tokiko poliziei buruzko etorkizuneko foru lege batek arautuko du.

143. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat sartzen duen Berrogeita zortzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Toki entitateen kostu ekonomikoak handitzea.

144. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikuluko bakarreko Berrogeita zortzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Udal agenteei buruz aurrez aurkeztutako zuzenketekin bat.

145. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Berrogeita Zortzi atala kentzeko zuzenketa. Proposatzen da atal hori kentzea eta, ondorioz, egungo bosgarren xedapen gehigarriari eustea.

Zioak: Ondorio garrantzitsuak dauzka beren plantilletan udal agenteen lanpostuak, C mailan, dauzkaten toki entitateentzat, aurreko araudiaren babesean, nahiz eta egin gabe eduki Segurtasun Eskolak ematen duen prestakuntza-ikastaroa.

Aipatutako araudiaren aplikazioak jada azterketa-prozesu zail bat sortu zuen, zeuden lanpostuak aztertzekoa, jakite aldera haietako zein sartu behar ziren C mailan, eta, horrenbestez, zein atxiki behar zitzaizkien polizia-eginkizunei eta zein ez. Xedapen honek berriro dakar lanpostu horiek aztertzea, zehaztuz prestakuntza ikastaroa gainditzea nahitaezkoa dela C mailari eutsi ahal izateko eta polizia eginkizunak betetzen jarraitu ahal izateko. Ikastaroa gainditzen ez bada, langile horiei beste eginkizun batzuk esleitu beharko zaizkie; hala eta guztiz ere, kasuko toki entitateek langile horiei lehen jasotzen zituzten lansariak ordaintzen jarraitu beharko dute, eta, gainera, udal agenteen lanpostu berriak bete beharko dituzte; horrek plantilla handitzea dakar, eta prestakuntza-ikastaroak egitetik eratorritako kostuak hartzea, besteak beste.

146. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zazpigarren xedapen gehigarri berria sartzen duen Berrogeita bederatzia atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Sartu nahi den zazpigarren xedapen gehigarriak Nafarroako udal asko behartzen ditu beren agenteen lan-baldintzetan funtsezko aldake-

tak egitera, interesa duten aldean artean inolako negoziatorik izan gabe.

147. ZUZENKETA

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCIA FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

Zazpigarren xedapen gehigarri berria sartzen duen Berrogeita bederatzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez zaigu bidezko iruditzen lege mailara igotzea proba fisikoak, aldeek itundu eta onartu duten gai bat delako, negoziazio kolektiboaren arlokoa. Gainera, arrazoizkoa litzateke kontzeptu hori, ikuspegi orokor batekin, eta negoziazio kolektiboaren esparru legitimoan, diru-konpentsazio batekin ordeztuta jotzea.

148. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Zazpigarren xedapen gehigarri berria sartzen duen Berrogeita bederatzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Toki entitateen kostu ekonomikoak handitzea.

Konpentsazio hori sartzea bat dator tokiko kidegoez kanpokoa den negoziazio batekin eta, horrenbestez, jotzen da ezin dela estrapolatu.

149. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Berrogeita bederatzi atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proba fisikoei buruz aurrez aurkeztutako zuzenketekin bat.

Proba fisikoengatik ordu-konpentsazio bat egoteak berarekin dakar Foruzaingoaren plantillan 90 efektibo gutxiago egotea (18 jai egun gehiago funtzionario bakoitzeko). Hori dela eta, zerbitzu publikoaren ikuspuntutik egoera horri eustea bidezkoa ez denez, ulertezin gertatzen da egoera hori tokiko polizia ere zabaldu nahi izatea; izan ere, horietan, 700 funtzionario inguruko plantilla

batetik 70 kendu beharko lirateke, zerbitzurik emanen ez luketelako.

150. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Berrogeita bederatzi atala kentzeko zuzenketa. Atal hori kentzea proposatzen da.

Zioak: Neurri hau tokiko polizia kidegoetan aplikatzeak arazo larria dakar, zeren eta berarekin baitakar edo ordutegi-konpentsazio bat ematea, zeina ebatzi beharko bailitzateke langile gehiago jarriz nahiz beste neurri batzuk hartuz –esate baterako, aparteko orduak ordaintzea eta abar–, edo konpentsazio ekonomiko bat emanez, proba fisikoak gaintzeari dagozkion kopuruak ordaintzearen bidez.

Gainera, kontuan hartu beharra dago proba fisikoetarako deialdiak berak jada zailtasun eta kostu ekonomiko izugarria dakartzala.

Konpentsazio hori sartzea bat dator tokiko kidegoez kanpokoa den negoziazio batekin eta, horrenbestez, jotzen da ezin dela estrapolatu.

151. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zazpigarren xedapen gehigarriko bigarren lerrokada –lege proposameneko Berrogeita bederatzi atalak aipatzen duena– aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

“Prestakuntza horrek eskatzen duen ahalegin pertsonala saritze aldera, kasuko proba fisikoak gaintzen dituzten Nafarroako polizia autonomiko kide guztiei aplikatuko zaie urteko 126 orduko konpentsazioa”.

Zioak: Proba fisikoak gaintzeagatik konpentsazioa polizia autonomikora mugatzen da soilik.

152. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zazpigarren xedapen gehigarriari buruzko Berrogeita bederatzi atalean ondotik datorren testua gehitzea proposatzen da:

“Zazpigarren xedapen gehigarria. Proba fisikoak.

Nafarroako Foruzaingoari esleitutako eginkizunen izaerak eta haiek modu egokian betetzeak eskatzen du kidego horietako kideak sasoi onean egotea, eta horretarako beharrezkoa den prestakuntza lan-denboraren kontura egin behar da.

Prestakuntza horrek eskatzen duen ahalegin pertsonala saritze aldera, kasuko proba fisikoak gaintzen dituzten Nafarroako foruzain guztiei aplikatuko zaie urteko 126 orduko konpentsazioa. Horretarako, urte bakoitzeko azken hiruhilekoan egingen da aipatu proba fisikoetarako deialdia, foru lege honen I. eranskinean ezarritakoari jarraikiz. Halaber, deialdi nagusia egiten den urtearen hurrengoaren martxoan "gertakari proba" bat egingen da, salbuespenezko eta justifikatutako arrazoiak direla-eta hasiera batean ezarritako eguntan probak egiterik izan ez zuten pertsonentzat.

Laneko istripua, gaixotasun profesionala, haurdunaldia edo amatasuna dela-eta proba fisikoak egiterik izan ez dutenek dagozkien orduak baliatzeko eskubidea sortuko dute, baldin eta proba fisikoak gaintu bazituzten lan istripua izan baino lehen edo lan gaixotasunagatiko, haurdunaldiagatiko edo amatasunagatiko baja hasi baino lehen parte hartu ahal izan zuten azken deialdian.

Nafarroako Foruzaingoko kideek aukera izanen dute, urte bakoitzeko irailaren 1a baino lehenago eta hurrengo ekitaldirako, foru lege honetako 51.2 artikuluan aurreikusitako sari ekonomikoa eskatzeko. Edonola ere, sari horrek betiere ordezkaturako du ordu-kompentsazioa.

Proba fisikoak gaintzeagatiko konpentsaziorik ez duten Nafarroako poliziaren kidegoek, dagokien esparruan negoziatu ahalko dute konpentsazio horren aplikazioa, xedapen gehigarri honetan azaltzen den moduan, eta lege honen I. Eranskinean ezartzen diren baremoei jarraikiz.

Proba fisikoak gaintzeagatiko konpentsazioa duten Nafarroako gainerako poliziaren kidegoek, probak mantenduko dituzte, lege honek indarra hartu arte zituzten baldintzetan.

153. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Berrogeita hamar atala kentzeko zuzenketa. Atal horrek xedapen gehigarri berri bat sartzen du.

Zioak: Ordainsari-osagarrien aldaketa kentzea proposatzen duten beste zuzenketa batzuekin koherentea izatea.

154. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Berrogeita hamar atala kentzeko zuzenketa. Bederatzigarren xedapen gehigarri berria txertatzeari buruzkoa da.

Planteatutako xedapenaren lehenengo, bigarren eta hirugarren lerroak kentzea.

Zioak: Proposamenaren amaierako lerrokadari baino ez zaio eutsi behar.

155. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Berrogeita hamar Atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lansarien araubideari buruz aurrez aurkeztutako zuzenketekin bat.

156. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Berrogeita hamar atala kentzeko zuzenketa. Idatz-zati hori kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Zuzenketa hau aurkeztu da aurreko zuzenketekin koherenteak izate aldera, zeren eta haietan lansari osagarrien aldaketak kentzeko proposatu baitugu.

Guardia lokalizatuak konpentsatzeari dagokionez, jotzen da, halaber, neurri hori ezin dela tokiko poliziaren kidegoei hedatu, aurreko zuzenketa adierazitako arrazoi berak tarteko.

157. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa bederatzigarren xedapen gehigarri berri bat sartzen duen Berrogeita hamar atalean. Aipatu bederatzigarren xedapen gehigarria honela idaztea proposatzen da:

"Bederatzigarren xedapen gehigarria Ordainsariak.

Etorkizuneko soldata igoeretan, eta foru lege honetako 51.2 artikuluan Nafarroako polizia kidegoetako kategoria desberdinen arteko proportzionaltasun indizeari buruz aurreikusitakoa gauzatu ahal izateko, polizia kategoria desberdinen artean lanpostu osagarria ezartzean, errespetatu eginen da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 41. artikulua Nafarroako administrazio publikoetako A, B eta C mailetako hasierako ordainsarietarako ezarritako proportzionaltasun indize bera.

Maila berean kategoria bat baino gehiago dagoenean, haien arteko proportzionaltasun bat ezarriko da, eta kontuan hartuko dira goragoko eta beheragoko kategorien proportzionaltasun indizeak.

Nafarroako polizia kidego bakoitzean, gaur egun kidego horretarako kategoria desberdinetarako dauden osagarrien zenbateko osoa banatu egin beharko da, foru lege honetan onetsitako ordainsari-sistemari jarraikiz. "administrazio bakoitzaren aurrekontuei ordainsarien kontu-sailaren igoerarik ekarri gabe, eta 51.2 artikuluan Foruzaingoarentzat ezartzen diren jaso beharreko gutxieneko lanpostuko osagarriak helburutzat hartuz, kategoria bakoitzean".

"Nafarroako poliziaren kidegoetan banaketa hori aplikatetik sortzen den lanpostuko osagarriari gehenez ere 100eko 4ko jaitziera aplikatu ahalko zaio, Nafarroako poliziaren kidego guztientzat osagarri berariazkoa oraingo 100eko 41etik 100eko 45era igotzearen ondorioz".

"51.2 artikuluan aipatzen den gehieneko aldea, % 7koa, sindikatueta ordezkariekin negoziatuko da, eta lanpostu bakoitzari eta haren berezitasunei buruzko azterlan bat egin ondoren ezarriko da, lanpostu horretara egokituta".

Guardia lokalizatuak ekonomikoki sarituko dira gainerako funtzionarioei saritzen zaizkien modu berean, edota denboran. Azken kasu horretan, guardia lokalizatuko ordu bakoitzari dagozkio, lanaldiaren urteko zenbaketaren ondorioetarako, txanda arrunteko lanaren hogeita hamar minutu. Era berean, kontuan hartu beharko dira lanaldien arteko gutxieneko atsedena eta asteko atsedena zehazteko".

158. ZUZENKETA

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCIA FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

I. eranskin berria sartzen duen Berrogeita hamaika atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru lege proposameneko Berrogeita bederatzi atala kentzeko zuzenketarekin bat.

159. ZUZENKETA

NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK AURKEZTUA

Berrogeita hamaika atala kentzeko zuzenketa. Proba fisikoei buruzko eranskin berri bat gehitzeari buruzkoa da.

1. eranskina guztiz kentzen da.

Zioak: Eranskin berria ez dago behar bezala justifikatuta. Bestetik, koherenteak izatea ordainsariei buruzko zuzenketekin.

160. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren artikulua bakarreko Berrogeita hamaika atala kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

161. ZUZENKETA

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCIA FORU PARLAMENTARIEK AURKEZTUA

Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeari xedapen gehigarri berri bat gehitzeko Berrogeita hamabi atal bat gehitzeko zuzenketa.

«Berrogeita hamabi. Xedapen gehigarri berri bat gehituko da.

«Xedapen gehigarri berria.

2015eko ekainaren 30a baino lehen, Nafarroako Gobernuak txosten bat aurkeztuko du, lege honek, indarraldiko lehen urtean, aurrekontuetan duen inpaktuari buruzkoa».

Zioak: Zuzenketa honen bidez, tresna bat lortu nahi da, era objektiboan erkatuko dituen bi alderdi, eta haien arteko desberdintasuna; batetik legea aldatzeko proposamenaren izpiritua, “egoera ekonomikoarekiko errespetu osoa gordetzen du; izan ere, egiten dena da poliziari bere osotasunean esleitutako zenbatekoa hobeto banatzea, baina inolaz ere handitu gabe” zioen azalpenean argudiatzen den moduan, eta bestetik Nafarroako Gobernuaren irizpidea, ekimena aztertu ondoren 3 milioi eurotan kuantifikatzen baitu ekimen horrek aurrekontuetan izanen duen inpaktua.

162. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa:

Xedapen gehigarri bat gehitzen da. Testu hau izanen du:

“Xedapen gehigarria:

Honakoak dira kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren esparruetan zehapenak ezartzeko eskumena duten Nafarroako Foru Komunitateko administrazio-ko agintariak.

1. Kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legeko zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, honakoak dira eskudunak:

Nafarroako Gobernua, 360.000,01 eta 650.000 euro bitarteko isunak jartzeko.

Segurtasunaren arloko eskumenen titularra den departamentuko kontseilaria, 180.000,01 eta 360.000 euro bitarteko isunak jartzeko.

Segurtasunaren arloko eskumenen titularra den zuzendari nagusia, 150 eta 180.000 euro bitarteko isunak jartzeko.

2. Kirol ikuskizunak antolatzeko aldi baterako inhabilitazio zehapenak ezartzeko eskumena eta kirol barrutiak aldi baterako ixtekoa, segurtasunaren arloko eskumena esleituta daukan zuzendari nagusiari dagokio, baldin eta etete epea urtebetekoa edo laburragoa bada, eta segurtasunaren arloko eskumenen titularra den departamentuko kontseilariari, epe hori luzeagoa baldin bada.

3. Kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legeko 24. artikuluan aurreikusitako zehapen osagarriak ezartzeko

eskumena kasuan kasuko zehapen organo esku-dunari dagokio, ezertan ere kendu gabe aurreko idatz-zatian sxedatutakoa, eta arau-hasute oso larriak ordeztekoa bada, Kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legeko 24. artikuluko 4. idatz-zatian xedatuaren arabera, segurtasunaren esparruko eskumena esleituta daukan zuzendari nagusiarena izanen da eskumena”.

Zioak: Kirolaren arloko indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legeko zortzigarren xedapen gehigarriak ezartzen du ezen agintaritzat hartuko direla, legearen beraren eraginetarako, kasuko autonomia erkidegoetako agintariak, pertsonen eta ondasunen babesaren eta herritarren segurtasunaren arloko eskumenak dituztenak, kasuan kasuko estatutuetan eta segurtasun indar eta kidegoei buruzko eta herritarren segurtasunari buruzko lege organikoetan xedatuaren arabera, eta lege horretan ezarritako zehapenak eta gainerako neurriak aplikatu ahalko dituzte eskumena daukaten arloetan.

Bai Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikokak, bai Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legeak eta Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeak aitortzen dituzte Nafarroak herritarren segurtasunaren eta pertsonen eta ondasunen babesaren arloan daukaten eskumenak. Hori dela eta, zuzenketa honen bitartez arau-multzoa osatu nahi da, kirolaren indarkeriaren arloko zehapen-eskumenez baliatzeko.

163. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Berrogeita bi artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Haren bidez, hamargarren xedapen gehigarria erantsi nahi da. Honako testua izanen du:

“Berrogeita bi:

Hamargarren xedapen gehigarria. Tokiko polizia kidegoak finantzatzea.

Tokiko poliziaren kidegoen finantzaketa erdibana eginen da, kasuko tokiko administrazioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaren bitartez.

Nafarroako Gobernuak tokiko poliziaren kidego bakoitza finantzatzeko hitzarmen bat sinatuko du dagokion toki entitatearekin, eta bertan zehaztuko

da zein izanen den Nafarroako Gobernuak entitate bakoitzari urtero ordaindu beharreko zenbatekoa. Nafarroako Gobernuak hitzarmen bidez jarriko duen kopurua toki entitateak urte bakoitzeko duen gastuaren erdia izanen da, tokiko poliziaren kidegoko kideen lansariei, uniforme-gastuei, armei eta polizia-ibilgailuei dagokienez”.

Zioak: Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek tokiko poliziaren kidegoen finantzaketan lankidetzan jardutea.

164. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposamenaren xedapen iragankorra kentzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

165. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bakarra ordeztzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

“Xedapen iragankor bakarra. Nafarroako tokiko polizia buruzko etorkizuneko foru legea.

Foru Lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean Nafarroako Gobernuak, aldeztatik tokientitateei epea emanda kontsultetarako eta parte hartzeko, Nafarroako tokiko polizia buruzko foru lege proiektu bat ekarriko du Nafarroako parlamentura”.

Zioak: Gaurko 8/2007 Foru Legearen edozein izapide edo aldaketa egiteak tirabirak sortzen dituzten tokientitateekin, agenteen plantillekin eta haien ordezkari sindikalekin. Eta gauza bera gertatzen ari da foru lege proposamen honen izapidearekin.

166. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposamenari beste xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe da:

“Xedapen iragankorra. Tokiko poliziako laguntzaileak.

Foru lege honek indarra hartzen duen egunean tokiko poliziako laguntzaileak dituzten udalek, ordura arte indarra zuen araudiaren arabera, egindako kontratuak amaitu arte mantendu ahalko dituzte, haietan aurreikusten diren luzapenak barne, kasua bada. Halaber, udal horiek tokiko poliziako laguntzaileak kontratatu ahalko dituzte, ordura arte indarra zuen araudiaren arabera, foru lege honek indarra hartu eta hiru urteko epean. Aipatu epean behar diren antolaketa-neurriak hartuko dituzte plantilla dauden beharretara egokitzeko”.

Zioak: Tokiko poliziako laguntzaileak dituzten tokiko poliziako plantillen igarotzea aurreikustea.

167. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposameneko xedapen indargabetzailea aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrak gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak”.

Zioak: Proposameneko xedapen indargabetzailea da, ez Poliziei buruzko Legearen xedapen indargabetzailea; horrenbestez, ez da egokia indargabetzea jada indargabetuta dagoena.

168. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposameneko azken xedapenetako lehena kentzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketekin bat etortzeko.

169. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetatik lehena aldatzeko zuzenketa. Hauxe proposatzen dugu:

“Azken xedapenetako lehena, Ordainsariak eta lanaldien araubidea:

Nafarroako Gobernuak eta tokiko poliziaren kidegoa duten administrazio publikoek 2015eko

urtarrilaren 1erako egokituko dituzte Nafarroako polizia kidegoetako funtzionarioen ordainsariak eta lanaldien araubidea foru lege honetako artikuluetan jasotako irizpideetara.”

170. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa:

Proposameneko azken xedapenetako hirugarrena kentzen da.

Zioak: Poliziei buruzko Foru Legearen erregelamenduzko garapenerako baimena jada legean bertan jasota dago.

171. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa:

Azken xedapen berri bat gehitzen da. Testu hau izanen du:

“Azken xedapena ***. Ordainsariei buruzko erregelamendua.

Foru lege hau onetsi eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak ordainsariei buruzko erregelamendu bat onetsiko du, Nafarroako Foruzaingoaren kidegoko ordainsarrietan egun dauden aldeak gutxitzeko, baina horrek ez du, zenbaketa orokorrean, langileria gastuak handitzea ekarriko.

Erregelamendu hori onesten ez den bitartean, ulertzen da Agintariak Zaintzeko Unitateko lanpostuaren osagarriak bere baitan biltzen duela urteko ordu-kopuruaz gainera 300 orduko arduraldia edukitzea. Hori dela eta, kopuru horretatik gora ez da aparteko ordurik sortuko”.

Zioak: Unitate horretako lanpostu osagarri handiagoak, une honetan mailako soldataren % 58,37 egiten duenak, lanpostuak eskatzen duen arduraldi handiagoari dagokio.

172. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 4. lerrokada kentzeko zuzenketa.

173. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 4. lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lerrokada horrek poliziako laguntzailearen figura kentzea bilatzen du. Irudi hori eztabaidagarria izan zen sortu zenean, eta bere erabilera ez da behar bezain arautua izan, baina gaur egun tresna hori gabe tokiko poliziaren kidegoei ezinezkoa litzaieke herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak ematen jarraitzea; beraz, ezin da kendu irudi hori.

174. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 5. lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Egia bada ere Nafarroako Polizien Kontseilua desagertzeko ematen den argudioa, Kontseilua probetxugabea izateari buruzkoa, ez dugu ahaztu behar ez dela izan benetako borondaterik parte hartze-, aholku- eta kontsulta-organo horrek bete zezan sortzean egokitu zitzaion eginkizuna.

Gure ustez, organo hori ez da kendu behar, sustatu egin behar da, eta politika- eta gizarte-eragileen parte-hartzearekin osatu, benetan organo probetxugarria izan dadin.

175. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko laugarren eta bosgarren lerrokadak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hurrengo zuzenketen bidez, gai horiek artikuluetatik kentzea proposatzen dugu.

176. ZUZENKETA

ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hirugarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“8/2007 Foru Legearen egiturari eutsita, aldatzeko honek kidegoen eta haiek osatzen dituzten kideen definizio hobea lortu nahi du, aintzat hartu-

ta batera bizi direla horiek gure erkidegoan, bereki gisa. Egun bizi dugun egoeraren modukoetan, ezin dugu utzi kontuan hartu gabe zer protagonismo duten esku-hartze polizialek krisi-garaietan eta gizarte-gatazkak bereziki ugariak diren garaietan. Errealitate horrek garamatza nabarmentzera beharrezkoa dela poliziak errespetatu ditzala Nazio Batuen Erakundeak giza eskubideen arloan abalaturako nazioarteko araudiak, poliziak betiere errespetatu behar baititu jardungai dituen pertsona guztien eskubideak. Unea da, halaber, bermatzeko Nafarroako polizia kidegoek betetzen dutela

hizkuntza araudia, eta, hala, Nafarroako Foru Komunitateko bi hizkuntzetako bat ere ez dela indarreko legediak ezartzen duen trataeratik kanpo geldituko. Halaber, tokiko poliziaren kidegoek duten gizarte-garrantziak –kidegoon eragina, izan ere, beren herritik gaindikoa izaten da– beharrezko egiten du tokiko poliziaren kidegoen finantzaketa batera egin dezaten Nafarroako Gobernuak eta kasuko tokiko entitateak”

Zioak: Zehatzago adierazten du lege proposamenaren helburua.

